

Urtekaria



A G I R R E
H O R T Z K L I N I K A

Nagore Agirre Odontologoa
Alaitz Agirre Odontologoa

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzclinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28

*Urte
berri on!*



Zero kilometro:
batzen gaituen
distantzia.
2022 on!

Larraltz Garai Zapata
artista aretxabaletarrak
Goienarendako egindako irudia.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA



DEBAGOIENENKO GREMIOAK



*Urte
berri on!*

ARZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL**
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

AURKIBIDEA

URTEKARIA DEBAGOIENA 2021

Urtea hilabetez hilabete

| | |
|-----------|----|
| Urtarrila | 4 |
| Otsaila | 6 |
| Martxoa | 8 |
| Apirila | 10 |
| Maiatza | 12 |
| Ekaina | 14 |
| Uztaila | 16 |
| Abuztua | 18 |
| Iraila | 20 |
| Urria | 22 |
| Azaroa | 24 |
| Abendua | 26 |

Protagonistak

| | |
|---------------|----|
| Protagonistak | 28 |
|---------------|----|

Aztergai

| | |
|---------------|----|
| Gizartea 2021 | 30 |
| Ekonomia 2021 | 33 |
| Kirola 2021 | 36 |
| Kultura 2021 | 39 |

Urteko pozak eta penak

| | |
|------------------------|----|
| Urteko pozak eta penak | 42 |
|------------------------|----|

Datorrena

| | |
|---------------|----|
| Gizartea 2022 | 44 |
| Ekonomia 2022 | 45 |
| Kirola 2022 | 46 |
| Kultura 2022 | 47 |

EDITORIALA

Ziztadak, komunitatea eta neurri eraginkorrak

Negu gogorrean murgilduta, itxaropenerako argi-izpiak sumatzen ziren orain dela urtebete, abendu azkenetan. Urtarrilarekin etorri ziren lehen txertaketak. Ziztaden eta herritarren borondate zein jokabidearen eskuetan utzi zituzten erakundeek eta gizarteak, oro har, izurrite globalaren amaiera. Txertaketari zintzo erantzun diote herritarrek, 12 urtetik gorako populazio osoaren %90 txertatu da munduaren alde honetan, nahiz eta, tamalez, beste kontinente batzuetan egoera ez den horren ona. Egoera hobetu da. Heriotzak murriztu dira inguru honetan, eta gaixo larrien kopurua ere bai. Baina kutsatzeak ez du etenik izan. Txertoei esker da egoera hobea eta txertatu bakoak dira ZIUetan dauden gehienak; txertoa hartu dutenak ere egon badauden arren. Gaur, iazko abenduan baino kutsatu gehiago daude, inoizko intzidentzia-tasa handienarekin. Hori bai, ZIUetan olatu oldarkorra izanagatik, jende gutxiago dago. Txertoei esker:

Bi erabaki hartu dira udazkenean, gizartean eztabaida eragin dutenak: batetik, 5 eta 12 urte arteko umeak ere txertatzea; bestetik, COVID-19 ziurtagiria erabiltzea derrigorrez. Erabakiak nahasmena eta nekea eragin ditu. Sumatzen da gizartean ez dela horren agerikoa itxaropena. Osasun zerbitzu unibertsalaren beharra zein garrantzitsua den agerian geratu da, beste behin. Ospitaleetan eta, une honetan, ambulatorioetan lehen lerroan daudenek baliabide gehiago eskatu dituzte egoerari hobeto erantzuteko. Izurrite global honi aurre egiteko txertorik onena herritarrok arduraz jokatzeko da, baina baita beharrezko baliabideak jartzea osasuna zaintzen dutenen eskura. Ardura publikoa dutenei osasun publikoa irmo bultzatzea dagokie.

Eredu jasangarriagoetarantz

Bestalde, norabide egokian doaz Arrasaten, azken urteetan, gobernu ezberdineko agintaldietan, eredu jasangarriagoetarantz hiriko mugikortasuna aldatzeko hartutako erabakiak. Lehen autoendako, kamioiendako zein motorrendako ziren guneak oinezkoendako edo bizikletendako errekuperatzen joateko. Testuinguru horretan kokatzen da Arrasateko TAO ere. Ikusi behar herritarren ohiturak aldatzeko balio duen. Larrialdi klimatikoari erantzuteko neurri

eraginkorra den. Dena esateko, TAO ezartzeko moduak sortu ditu hainbat herritarren kritikak -4.000 sinaduratik gora jaso dira-, baina, sakonean, erabakiaren zentzuarekin bat egiten dute herritar gehienek eta Arrasateko udalbatzan ordezkaturak dauden lau taldeek.

Eredu jasangarriagoekin eta gizarte eraldaketarekin lotuta, iaz aipatuta geratu ziren Debagoiena 2030, Arantzazulab -aurtengo martxoan ofizialki jendaurrean aurkeztuta- eta MonzonLab ekimenez gain, nabarmentzekoak dira beste hauek: Leintz bailaran, Ekiola herritarren kooperatiba energetikoa; Bergaran, 2030 Egin herrixia eta *Ehunduz*; Oñatin, Onaro telekomunikazio operadorea.

Goienakide, Goienaren oinarrietako bat

Azken lerroak, Goienaren komunitateari. Goienakideen urtea izan da. Zehatzago esanda, Goienakideak sekula baino presentago izango ditugun urteen hasiera. Zergatik? Nahi dugulako Goienakideekin

ARDURA PUBLIKOA
DUTENEI OSASUN
PUBLIKOA IRMO
ZAINTEA ETA
BULTZATZEA DAGOKIE

batera komunikazioan sakondu. Horretarako jarri dugu, D2030ekin batera, komunitateaz hausnartzeko gune bat; eta azterketa egin dugu zelan eskertu Goienakideak. Helburua da zerbitzu hobea ematea Goienakideei; izan ere, Goienak aurrera egin dezan ezinbestekoa da Goienakideak fidelizatu eta

gehitzea. Gehiago gara, 4.000tik gora. Tartean daude: norbanakoak, gehien-gehienak; elkarteak, mota askotakoak; enpresak, Goienan sinistu eta babesa ematen digutenak. Denei, banan-banan, eskerrak! Zero kilometroko hedabide euskaltzale honek gero eta eragin handiagoa izateko oinarria zarete. Egongo da Goienakide egin gura duenik. Errazena Goienaren aplikazioa jaistea da. Debagoiengan gertatutakoak euskaraz informatzeaz gain, badu beste dohain bat aplikazio horrek: bertako komertzioa, ostalaritza; bertako autonomoak, gremioak... bultzatzeko eta agerikoagoak egiteko gunea ere bada, Goienaren gainerako hedabideak bezala. Benetan sinisten dugulako gertukoan, tokikoan, zero kilometroan. Horrelakoa baita aplikazioko Goiena Gida, zero kilometrokoa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igor Osinaga.

Erredakzioa
Eneko Azkarate, Jone Olabarria, Maialen Santos, Arantzazu Ezkibel, Oihana Elortza, Julen Iriondo, Imanol Beloki, Miren Arregi, Xabier Urzelai, Aitziber Aranburuzabala.

Argazkiak
Erredakzioa, Irekia, Francis McKee, Ander Gillenea, Aita Menni, Bernat Alberdi, Sergio Mateo Maria, shutterstock.com.

Maketazioa

Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Edurene Arenaza,
Iñaki Iturbe.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Garazi Azpeitia.

Administrazioa

Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale



GOIENA
KOMUNIKAZIO
TALDEA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Honako urtekari honen edizioa abenduaren 23an itxi du Goienak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

OÑATI

Hitanoa lantzeko ekimena ikasleekin

Ingo Xonau! ekimena ikastetxeetara heldu zen. Astean behin, hamabost minutuz, hitanoa lantzeko ahozko ariketak egiten hasi ziren DBH-4 eta batxilergoko bigarren maila artekoak. Hiru urterako ekimena da.

ARETXABALETA

Urkuluko urtegiak gainezka egin zuen

Mendi tontorretako elurra urtu izanak eta orduko euriek Urkulu urtegia bete-bete egin zuten. Bere edukieraren %99,85ean zegoen urtarrilaren 26an. Egun berean egin zuen gainezka Urkuluko urtegiak.

ARRASATE

Eneko Barberena idazlea

Nobela beltz bat idazteko Hilbeltza beka irabazi zuen arrasatearrak. Ilusioz heldu zion erronka berriari, eta nobela idazteko urtea motz egingo zitzaioa aurreikusitako.



BERGARA

Asier Garitano Entrenatzailea

Urtarrilaren 27an iragarri zuen "etxean" entrenatzera itzuliko zela, Leganes taldeko entrenatzailea izango zela. Jose Luis Marti ordezkatu zuen, taldea gorenera igotzeko helburuarekin.



KORONABIRUSA


ARRASATE

Maria Angeles Ibarluzearen erailketa salatzen

Ehunka pertsona bildu ziren urtarrilaren 2an, Arrasateko Herriko Plazan, Maria Angeles Ibarluzea Etxabe arrasatearraren erailketa matxista gaitzesteko. Abenduaren 28a ezkerko zegoen desagertuta Kanariar uharteetan bizi zen arrasatearra. Bikotekidea polizia-etxera joan zen eta aitortu zuen berak hil zuela Ibarluzea.



DEBAGOIENA

Bidesariaren aurkako protesta kamioilariak Deskargan

Garraiolarien Hiru sindikatuek eta A-636 Beasain-Bergara Pea-*jerik Ez* plataformak egin zuten deialdia. Hala, Ormaiztegitik Bergarara eta berriro Ormaiztegitira buelta egin zuten hilaren 30ean 30 kamioik eta 50 bat ibilgailuk. Deskargako bidesariak "lurraldeari kalte handia eragin diezaiokela" adierazi zuten.

DEBAGOIENA

Lehen txertoak iritsi ziren Debagoieneko adinekoen egoitzetara

Urtarrilaren 2an hasi ziren COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko bileran, Eskoriatzako Jose Arana egoitzan. Ostean iritsi zen, urtarrilaren 5ean, Arrasateko Iturbidera. Guztira, 41 langilek eta egoitzan zeuden 85 egoiliarretatik 84k hartu zuten orduan txertoa; goiko argazkietan daude horietako batzuk.

DEBAGOIENA

359**Positibo berri urtarrilean**

COVID-19ak, guztira, 359 lagun kutsatu zituen urtarrilaren 1etik 31ra Debagoienean. Pandemiak eztanda egin zuenetik eta urtarrilaren 31ra arte, 5.024 pertsona kutsatu zituen gaitzak. Adinekoen egoitzetan hamazortzi positibo zeuden aktibo une hartan: hamazazpi GSR Debagoienan eta bat Oñatiko San Martinen.



BERGARA

Zuzendari ohiei omenaldia, zuhaitzak landatuz

Miguel Altuna Lanbide Heziketak ikasturteko egun handia ospatu zuen urtarrilaren 29an, San Juan Bosco eguna. Juan Gallastegi, Fernando Otaño, Felix Askasibar, Jose Ramon Arakistain, Jose Mari Larrañaga, Iñaki Larrañaga eta Iosune Irazabal omendu zituzten. Zuzendari ohi bakoitzak zuhaitz bana landatu zuen.





KOOP.E.

EGUZKIGRAF inprimategia
 Tel.: 943 79 18 44 - 688 619 661
 info@eguzkigraf.com
 Industrialdea F-O-4
 ARETXABALETA

2022a oparotasunez beteta izatea opa dizugu
 Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskaintzen segituko dugulakoan.

ARRASATE

Malen Ruiz de Azua Atleta

4,41 metroko pertika-jauzia egin zuen hilaren 30ean, Anoetako belodromoan jokatu zen Euskadiko txapelketan, eta 'indoor'-ean zuen marka ondu.



DEBAGOIENA

Pintaketak EAJ eta udaltzainen aurka

Urtarrilaren 30ean, ertzainen, udaltzainen, EAJren eta Arrasateko alkatearen aurkako pintaketak agertu ziren Arrasateko eta Oñatiko batzokietan. Arrasateko Udal Gobernuak "gaitzetsi" egin zituen.

ARRASATE

Gazteen aurkako jarrera salatu zuten

AGAKOko kideak kalera atera ziren hilaren 18an, "gaztetxeen aurkako erasoak eta gazteen kriminalizazioa salatzeraz". Kalejira egin zuten herrian zehar eta eskuorri informatiboak banatu zituzten.

ARRASATE

Herritarren laguntzaileak, kalean

Bost brigada txikitik banatutako 26 langabe kontratatu zituen Arrasateko Udalak; tartean, herritarren laguntzaileak. Herritarren kekek jaso eta udal kontuen gaineko informazioa eman eta udaltzainak laguntzen dituzte.



DEBAGOIENA

Ehunka lagun Sarek deitutako manifestazioetan

Sarek urte hasieran Bilbon egiten duen manifestazioa herririk herri egin zuten urtarrilaren 9an. "Sakabanaketa politika" amaitzea eta "gaixoak edo adindunak diren presoak askatzea" eskatu zuten bailarako herrietan. Debagoieneko herri guztietan egin zituzten, eta, osasun eta segurtasun neurri bereziekin, jendetsuak izan ziren.



DEBAGOIENA

Elurte handia egin zuten; gune garaietan, bereziki ikusgarria

Urtarrileko lehen egunetan elur-tuta esnatu ziren bailarako herri guztiak. Paisaia ikusgarria izan bazen ere, elurrak hainbat arazo eragin zituen errepide sarean; Elosua, Kanpazar, Arantzazu eta Kurtzetako mendateak itxita egon ziren, eta inguruko gainerakoetan hainbat arazo eragin zituen.



DEBAGOIENA

Hainbat liburu argitaratu zituzten debagoiendarrek

Las tejeras en la villa de Oñati liburua idatzi zuen Jose Ramon Arrazolak, *Una biblioteca bergarresa de la época ilustrada* Juan Madariagak eta *Bergarako atletismoaren historia* Pili Arinek. Irudietan daude Laia Altuberen poesia-lana eta Noelia Fernandezek *Ekhi, mago izatea amesten zuen umea* liburua.



BERGARA

Angiozarrek Tokiko Entitate Txiki izateko prozesua abiatu zuten

Estatus juridiko berri horrek "autogestiorako ahalmen handiagoa" emango lioke. Bergarako Udaleko hainbat eskuduntza zuzenean bertatik kudeatzeko eskumena izatea ekarriko luke. Herrigune izateko gutxieneko 500 biztanleko kopurua ezartzen du, baina, foru arauak, eta Angiozarren 300 daude.

ANTZUOLA

Eztala futbol zelaiko aldagelak inauguratu zituzten

Urtarrilaren 9an egin zuten Eztalako aldagela berrien inaugurazio ekitaldia. 2017az geroztik Eztalako aldagelak ezin erabiltzen zuten antzuolarrak, eta obra barrakoiekin moldatu behar izan zuten. Epe motzera erabiltzeko esperantza handirik ez zuten arren, kirol elkarte eta Udala "pozik" agertu ziren.

urte berrian,
asmo berriak.
2022 on.

ERREKA

ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTIKOAK

erreka.com

BERGARA

Bergara bizia eraikitzeke plana

Bergarako Udal Gobernuak 'Bergara Izan, Bizi, Ekin' plana aurkeztu zuen hilaren 11n. Hemezortzi helburu eta horiek lortzeko "ekintza zehatzak" jasotzen ditu horrek, "etorkizuneko Bergara bizia eraikitzeke".

ARRASATE

Burgosko epaiketa gogora ekartzeko

Burgosko epaiketari buruzko erakusketa inauguratu zuten Kulturaten, hilaren 18an. Aldundiak eta Aranzadi zientzia elkarteak antolatu zuten, giza eskubideen aurkako "eraso" hura ahanzturan geratu ez dadin.

DEBAGOIENA

Joxe Ramon Goikoetxea zendu zen

Mondragon Korporazioko lehendakariorde izandako Jose Ramon Goikoetxea hilaren 19an hil zen, 72 urte zituela. Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko lehendakariordea zen une hartan.

LEINTZ GATZAGA

Juan Luis Zabala Argazkilaria



Leintz Gatzagako ate eta arkupe guztiei argazkiak atera zizkion, eta 69ak batuz collagea egin zuen, poster eran, gertukoei opari gisa emateko. Emaizarekin "pozik" agertu zen.



DEBAGOIENA

Toledoko Itunaren aurkako protesta egin zuten

Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, manifestazioa egin zuten pentsiodunek otsailaren 13an, Oñatin, Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan. Pentsio publiko duin eta nahikoak bermatu daitezkeen eskatu zuten, sistema "jasanezina" dela argudiatuta. Toledoko Itunaren murrizketen aurka azaldu ziren.



BERGARA

Emon taldeak itzulera kontzertua eskaini zuen

Azken kontzertua eman zutenetik lau urte pasatxo igaro ostean, Emon taldekoak otsailaren 20an itzuli ziren agertokietara. Bergarako Seminarixoan eskaini zuten itzulerako kontzertua, eta sarre-ra guztiak agortu zituzten hitzordu hartarako. Nobedadeen artean egon zen Biken Larrañaga bergararra batu zela taldera.



ARRASATE

Domina bana eskuratuta itzuli ziren atletak Madrildik

Pista estaliko Espainiako txapelketatik urrezko eta zilarrezko dominak ekarri zituzten Arrasateko atleta Malen Ruiz de Azuak eta Eneko Carrascalek, hurrenez hurren. Marka pertsonal bana ere egin zuten otsailaren 20ko asteburuan Madrilen jokaturako txapelketan. Lorpenak "emozioz" hartu zituzten biek.

ARETXABALETA

Herriko kultura hiltzen ari zela salatu zuten sortzaileek

Otsailaren 20an manifestazioa egin zuten Aretxabaletan, Kuartela Kultur Elkarteak deituta. Kultura "segurua" dela eta kuartela "zabalik" gura dutela aldarrikatu zuten musikari eta herritarrek. Udalarari hura zabalteko proposamena egin zioten, baina horretarako aukerarik ez zutela adierazi zuten bertatik.



BERGARA

Labegaraietako kiroldegi eraberritua ireki zuten

Otsailaren 6an inauguratu zuten Labegaraietako kiroldegi berri-tua. Ordezkarri politikoei, kirol taldeei eta herritarrei zuzendutako bisita gidatuak egin zituzten egun hartan, txandaka. Kirola egiteko azpiegitura izateaz gain, herriarendako "erreferentziatzako gune" izatea gura dutela azaldu zuten Udaletik.



RPS: 83/19



Urte berri on!!

ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

OÑATI

Gari Baños hil zen, Aloñan, istripuan

Movistar ziklismo taldeko fisioterapeuta Gari Baños otsailaren 20an hil zen, Aloñan, amildegian behera erorita. Oihartzun handia izan zuen haren heriotzak Oñatin eta handik kanpo; batez ere, txirindularitza munduan.

DEBAGOIENA

Ontzi arinen birziklapenari bultzada

'Ondo bereiztua, asko aurreztua' kanpaina jarri zuen abian Mankomunitateak otsailaren 4an; ontzi arinen birziklapena hobetzea helburu. Hurrengo egunetan ekimen ugari egin zituzten herrietan.

ELGETA


Zaldibarko lur-jausiaren urteurrena

Zaldibar Argituk deituta, elkarretaratzea egin zuten hilaren 6an, Elgetan, Zaldibarko zabortegia amildu eta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileak azpian harrapatu zituela urte bat bete zen egunean.

ARETXABAETA

Baldomera Mendiz Herritarra

101 urte bete zituen otsailaren 27an, eta angulak janda ospatu zuen urtebetetze eguna. Osasun egoerak uzten duenean urteurrena familia osoarekin ospatuko duela azaldu zuen.



DEBAGOIENA

Mugimendu feminista, arrazakeriaren aurka

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako karabana Debagoienera iritsi zen otsailaren 20an, emakume feministek egindako zapiak jasotzera. Oihal horietan mezu feminista eta arrazistak idatzi zituzten aurrez, eta ondoren, Irun eta Hendaia arteko zubian eskegi zituzten Euskal Herriko gainerakoekin batera.



KORONABIRUSA


DEBAGOIENA


Positibo kasuak gorantz Oñatin eta Aramaion

EAEko intzidentzia-tasa txikienetik handiena izatera pasa zen Oñati, eta Txantxiku Ikastolako 211 ikaslek eta langilek PCR probak egin zituzten hilaren 12an. Aramaion ere gora egin zuten kasuek, eta udal eraikinak itxi zituzten. Auzitegi Nagusiak eremu gorriko herrietako tabernen irekiera baimendu zuen; tartean, Aramaiokoak.

OÑATI

Zubikoako igerileku berriak inauguratu zituzten

Hamahiru hilabetez itxita egon eta gero, otsailaren 5ean zabaldu zituzten igerileku berriak. Igerilarien entrenamenduak egiteko eta abonatuak izan zuten lehenbizi horiek erabiltzeko aukera. Aurrez egin behar zen igeri egiteko erreserba, eta ordubeteko txandak antolatu zituzten, hain zuzen ere.



OÑATI

Mendebaldeko Sahara existitzen dela aldarrikatu zuten

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 45. urteurrenaren harira hainbat herritar elkartu ziren Oñatiko plazan, otsailaren 28an. Orduko egoera "kritikoa" salatu eta euren eskubideak "aldarrikatu" zituzten, eta iazko azarotik Marokorekin zuten borrokan ez zutela etsiko azaldu.





Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela




Urte berri on!

KALEBARREN 5
943 76 62 90
ANTZUOLA

8.000

DEBAGOIENA
litro esne

Zaporeak elkartekak deituta, esne bilketa egin zuten martxoaren 13an eta 14an Gipuzkoan. Hain zuzen, Debagoiengan 8.000 litro batu zituzten, Lesbos uharteko errefuxiatuendako.

DEBAGOIENA

Huhezinemako sariak banatu zituzten

Xabier Vallinaren 'Ilunabarrean esan' eta Maddi Barberren 'Gorria' filmek eskuratu zituzten fikzio onenaren sariak, martxoaren 18an; lehenak MUko ikasleen sailean eta bigarrenak sail ofizialean.

ARRASATE

Unai Parot etxeratzea eskatu zuten

Unai Parot presoaren askatasuna eta etxeratzea eskatzeko manifestazioa egin zuten martxoaren 28an. Parot atxilotu zuten urtean –1990– jaiotako hiru herritarrek eroan zuten pankarta.

LEINTZ GATZAGA

Jose Luis Saez de Olazagoitia Txirrindulari ohia



Martxoaren 25ean omendu zuten Saez de Olazagoitia gasteiztarra, Dorletako Ama txirrindularien zaindaria izan zedin 1960an Erromara bizikletan egindako bidaiagatik.



ARRASATE ETA OÑATI

AEK babesteko ekintzak egin zituzten

2021ean egitekoa zen Korrika bertan behera gelditu zela ikusita, Euskal Herriko ia 100 herritan –tartean, Arrasaten eta Oñatin– *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!* izeneko ekimena egin zuten martxoaren 28an. Korrikak utzitako hutsunea estaltzea eta horren galera ekonomikoak arintzea zituen helburu ekimenak.



OÑATI

ArantzazuLab laborategia aurkeztu zuten

Martxoaren 25ean inauguratu zuten ArantzazuLab gizarte berrikuntza laborategia. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak, Mondragon Korporazioak, Kutxa Fundazioak eta Arantzazuko Frantziskotar Probintziak bultzatutako proiektua Gandiaga Topagunean aurkeztu zuten.

KORONABIRUSA



DEBAGOIENA

Udaltzainen, etxeko langileen eta irakasleen txanda

Martxoaren 2an hasi ziren txertatzen udaltzainak, etxeko udal langileak eta 55 urtez azpiko Haur Hezkuntzako irakasleak; horrez gain, martxoaren 3tik aurrera, baita 90 urte-tik gorakoak ere. Nabarmendu behar da martxoan, Debagoiengan, 6.000 positibo metatuen langa gainditu zela.

OÑATI

XIX. mendeko eskuizkribuak sarean jarri zituzten

Manuel Umerez Goribargoitia apaiz oñatiarrak XIX. hasieran oñatieraz idatzitako eskuizkribuak digitalizatu ditu Oñatiko Udalak Gipuzkoako Artxibo Historikoaren laguntzarekin, herriko hainbat eragilek eskatuta. Martxoaren 24an jarri zituzten sarean, edonork irakurtzeko moduan.



BERGARA

Elkarteen lanari balioa eman zioten Bizipoza jaian

Bizipoza jaia egin zuten martxoaren 13an eta 14an Bergaran. Zapatuan, *Mundu berri bat guztiontzat* ekitaldia egin zuten; eta domekan, aldiz, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bisita jaso zuten bergararrek. Elkarrekin egiten duten lanari aitortza egitea izan zen jaialdiaren helburua.



Julen Uribeetxeberria Txintxurreta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Urte
berri
on!

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI • Tel.: 943 78 01 54 / 699 34 89 47



BERGARA

Gorlan, Asier Etxeberria irabazle

Lokatza txirindulari taldeak antolatuta Gorlako Igoera jokatu zen martxoaren 28an. Antolatzaileak pozik, eta txirindulariak ere pozik lasterketa lehiatu izanarekin. Laboral Kutxako Asier Etxeberria izan zen irabazlea.

BERGARA

'30 emakume ahaztezin' erakusketa

Euskal Herriko historian esanguratsuak izan diren emakumeak ekarri nahi zituen gogora Laboratoriumeko erakusketak. Ereku publikoko 30 emakumeren erretratuak eta biografiak batu zituzten.

OÑATI

Zotzak egiteari utzi zion Betik-ek

Azkoagain parean dagoen eraikinean zuen ekoizpen-negozioa eten egin zuen Betik-ek martxoaren 31n; hau da, zotzak egiteari utzi zion. Aldiz, komertzializazio negozioarekin aurrera jarraitzen du.

ARETXABAETA

Kepa Errasti Aktorea

Errastik sortutako 'Fadoak entzuten zituen gizona' lanak irabazi zuen 21. Donostia Antzerki Saria. Iaz Donostian eskainitako euskarazko antzezlan onena izan zen, beraz.



DEBAGOIENA

Sistema arrakalatzeko aldarrikapena, kalean

Mugimendu feministak deituta, bailarako herri guztietan egin zizuten manifestazioak eta elkarretaratzeko Martxoaren 8an. Segurtasun neurriak mantenduz, "sistema arrakalatzeko" asmoz irten ziren kalera bailarako emakumeak. Aldarrikapenak eta eskaerak bailarako kaleetan zabaldu ziren lau haizeetara.



BERGARA

Telesforo Monzon hil zela 40 urte bete ziren

2021eko martxoaren 9an bete ziren 40 urte Telesforo Monzon hil zela. Hala, urteurrena aprobetxatu zuten Olaso Dorrea Fundazioak eta Udalak sortutako lehen Monzon-Ganuzua saria banatzeko. Horretaz gain, *Lorontzia berreraikiz* ekitaldia egin zuten pilotalekuan eta Olaso Dorrea ikusteko bisita gidatuak egiten hasi ziren.



DEBAGOIENA

Debagoiendarren babesa jaso zuten Realeko ordezkariak

Realak eta Athleticek jokatzekoa zuten Errege Kopako finalaren atarikoan, bailarako elkarteek babesa erakutsi zioten Realari. Izan ere, zalerik gabeko finala izan zen; horren harira, Realeko autobus ofizialak Gipuzkoa osoa zeharkatu zuen, babesa jasotzeko. Debagoieneren martxoaren 22an egon zen autobusa.

OÑATI

IV. Beratu jaialdia egin zuten; harrera beroa izan zuen

Martxoaren 19tik 21era bitartean ospatu zuten Beratu jaialdia, Oñatin. Laugarren ekitaldiak harrera beroa izan zuen herri-tarren aldetik. Estilo askotako doinuak izan ziren Santa Ana aretoko oholtzan. Anna Andreu eta Marina Arrufat musikari katalanak izan ziren, besteak beste, musika eskaintzen.

**Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak**

**GOROSABEL
DENTAL**

RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
© clinicagorosabel

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, kirurgia eta gainontzeko tratamenduak.

Urte berri on!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

DEBAGOIENA

Iban Arantzabal

Tokikomeko presidentea

Apirilaren 23an, batzar orokorra egin zuten Tokikomek eta Iban Arantzabal izendatu zuten presidente. Jone Guenetxeari hartu zion lekukoa.



BERGARA

Lexeia Larrañaga Zinemagilea

Apirilaren 16an estreinatu zuten bergararraren 'Natura bizia' filma zinema aretoetan. Azaldu zuten une aprobelean iritsi zela: "Bizi dugun egoeran, naturaren garrantziaz jabetu garelako".



OÑATI

Juan Carlos Irizar musikaria hil zen

Apirilaren 22an hil zen oñatiarra, 69 urte zituela. Eskarmentu handiko piano-jolea, konpositorea eta abesbatzen zuzendaria izan zen. Haren heriotzak samina eragin zuten herritarren eta musikazaleen artean.

ELGETA

Oihana Kortazar

Mendi lasterkaria


Espainiako Kopako lehen proba irabazi zuten Sevillan, podiumera ere igo zen Kantabrian. Euskal selekzioarekin urrea irabazi zuten egun batzuk geroago.



DEBAGOIENA

Herriz herri ospatu zuten Aberri Eguna

Apirilaren 4an izan zen Aberri Eguna, eta, hori ospatzeko, Euskal Herria Batera ekimenak deitutako *Keinu bat batera* dinamikarekin bat egin zuten 120 herrik; tartean, bailarako guztiek. Osasun krisia medio, elkarretaratzeak egin zituzten herriz herri –argazkian, Arrasateko plaza–, eta euskal kantak ozen abestu zituzten.



OÑATI

8.610 kilo elikagai batu zituen Hotz Oñatik, Lesboserako

8.610 kilo elikagai bildu zituen Hotz Oñatik herriko supermerkatuetan egindako janari bilketan. Zaporeak GKEREkin batera, Lesbosko errefuxiatuei bidali zieten jasotako guztia. 100 boluntariok hartu zuten parte hiru hilaren 15etik 17ra, hiru egunez, egin zuten elikagai bilketako kanpainan.



DEBAGOIENA


Kutxa Birak eskualdean egin zuten geldialdia

Apirilaren 25ean, Urretxu-Zumarragatik heldu zen Kutxa Bira Antzuolara, eta Aretxabaletan eta Aramaion ere egin zuten geldialdia. Diaspora eta hainbat euskal herri euskararen baitan batzeko helburuarekin abiarazi zuten bira, Argentinan. Egurrezko kutxa oinarri zuten ekimena Euskal Herrian barrena aritu zen gero.

ARRASATE

Realak Errege Kopako finala irabazi zion Athletici, Sevillan

Apirilaren 4an jokatu zuten Athleticek eta Realak Espainiako Errege Kopako finala, Cartujan (Sevilla). Realak irabazi zuten, Mikel Oiarzabalek penaltiz sartutako gol bati esker. Andoni Gorosabel jokalaririk arrasatearrak ere jokatu zuten partidua; 92 minutuz izan zen zelaian eta maila ona erakutsi zuten.



OÑATI

Antixena gaztetxea segurua zela aldarrikatu zuten

Mobilizazio jendetsua egin zuten apirilaren 11n Oñatiko kaleetan zehar, gaztetxea "segurua" zela aldarrikatzeko eta "jazarpen poliziala" salatzen. Martxoaren 27an itxi zuten Ertzaintzak gaztetxea, jatekoa eta edatekoa emateko lizentziarik ez zutela esanez, eta maiatzaren hasieran ireki zuten berriro ere.



**ION
ZERBITZUAK**

**Urte
berri on!!!**

**Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak**

24 orduko zerbitzua


658 99 59 12



ARAMAIO

Maria Izaga Abeslaria

Musikari aramaioarrak irabazi zuten Gaztea Cover lehiaketako entzulearen saria. The Animals taldearen 'The house of the rising sun' kanta aurkeztu zuten eta boto gehien eskuratu zituen.



BERGARA

Banketxeen jarduna salatu zuten

Apirilaren 26ko elkarretaratzea baliatu zuten pentsiodunek mobilizazio berezia egiteko; bankuen jarduteko moduarekiko desadostasuna agertu zuten. EAEko 68 herri batu ziren protestara; tartean, Bergara.

ELGETA

Ainara Sangroniz
CAF-Elhuyar saritua

CAF-Elhuyar sariketan, doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikulu onenaren saria eskuratu zuten, polimero jasagarrien gaineko lan batekin.



OÑATI

Martinen hitzaldia zela-eta, protesta

'Faxismoaren aurrean mila kolore' lelopean elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek Oñatin apirilaren 27an. Informa. Tu taldeak antolatutako Cristina Martin kazetariaren hitzaldia salatu zuten.



DEBAGOIENA

1936ko gerrako umeak omendu zituzten

Apirilaren 23an eta 24an, gerrako umei omenaldia egin zieten herririk herri, osasun krisiak baldintzatuta. 1936an 0 eta 16 urte bitarte zituzten eta erbestera ihesi joan ziren haur debagoiendarrek jaso zuten aitortza, frontean borrokatu gabe ere "gerran gehien sufritu zutenak" izan baitziren, Intxortakoen hitzetan.



ARRASATE

AGAKOren 30. urteurrena ospatu zuten

Apirilaren 17an eta 18an, AGAKOren 30. urteurrena ospatu zuten, Amaia Udal Antzokia gaztetxe bihurtuta. Taldearen ibilbidea jasotzen dituen liburua eta hainbat garaitan taldeko kide izan diren protagonisten ahotsak jasotzen dituen dokumentala aurkeztu zituzten, Gala Galanta izeneko emanaldian, 300 lagunengain.



BERGARA

Lazkanoren hamaika lan ikusgai izan ziren erakusketa batean

Jesus Mari Lazkano margolari bergararrak apirilaren 16an inauguratu zuten hamaika lanez osatutako erakusketa Aroztegi aretoan. 16 urterekin egin zuten bakarkako lehen erakusketa jaioterrian, eta 45 urte ondoren egin zuten bigarrena. Senideek eta udal ordezkariak lagunduta egon zen irekiera egunean.



DEBAGOIENA

Sektore publikoko behin-behinekotasun egoera salatu zuten

Apirilaren 22rako, sindikatu ugari greba deitu zuten EAEko sektore publikoan; batez ere, langileen "behin-behinekotasun egoera" salatu eta lanpostu horien egonkortasuna eskatzeko. EAEko administrazioetan enpleguaren egoera "gero eta kezkarriagoa" dela adierazi zuten protesta egun hartan.


DEBAGOIENA

7.000

kutsatu

Apirilaren 22an, 7.000 kutsatuen langa gainditu zen Debagoiengan; martxoaren 17an 6.000 infektatuen langa gainditu eta 36 egunera, zehazki. Bestetik, hilabete hartan eskualdeko intzidentzia-tasa lurraldekoek gaindi egon zen. Apirilaren 27an jo zuten goia, 876,42ko tasa erregistratu baitzen egun hartan.

autopullmans

Araba**Urte berri on!**

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

ANTZUOLA

Aitortza, Alardea biziberritzeagatik

Mairuaren Alardean emakumeen alde egindako lanagatik egin zion aitortza Antzuolari Emakundek; herriko jai parekideak antolatze bidean urrats bat gehiago egin izanagatik, hain zuzen.

OÑATI


Bizikletentzako aparkaleku estaliak

Bizikletentzako aparkaleku estaliak jarri zituzten Oñatiko hiru puntutan; baita patineteentzako beste bat ere. Beharra zegoela ikusita, aurrekontu parte-hartzaileetan ateratako eskaera zen.

ESKORIATZA

Leire Rato Borrokalaria

Atama Eskoriatzako Leire Rato borrokalaria Espainiako txapeldun da, combat sambo modalitatean, bigarren urtez jarraian. Maiatzaren 2an lortu zuen titulua, Madrilan.



BERGARA

Erretiroa hartu zuen Koldo Lasak

Erretiratu egin zen Koldo Lasa, 1994ko iraila ezkerro Lasako arduradun izan den sukaldaria. Hiru belaunalditan zehar sukalde-familia esanguratsuenetako baten ibilbidea bukatu zen berarekin.



DEBAGOIENA

Bizikleta martxa, pentsio duinak eskatzeko

Gipuzkoako pentsiodunen bizikleta martxa Debagoienara iritsi zen maiatzaren 26an. Oñati, Arrasate, Antzuola eta Bergara bizikleta gainean pasa zituzten pentsiodunek, *Pentsio publiko duinak! Murrizketarik ez!* lelopean; Toledoko Itunaren aurka daudela aldarrikatu zuten. 29an, manifestazioak egin zituzten hiriburuetan.



DEBAGOIENA

Tontorretan eskatu zuten presoek etxeratzea

Izan Bidea dinamikaren baitan eta Sare Herritarrak deituta, ehunka debagoiendar igo ziren maiatzaren 8an ibarreko tontorretara euskal presoek etxeratzea eskatzeko. Euskal Herri osoan 650 tontori igo zituzten; horietako batzuk, Debagoienekoak. Antolatzaileak pozik zeuden ekimenak izan zuten erantzunarekin.



ANTZUOLA

Alzarte-Errotaberriko eraikina eraitsi egin zuten, etxeak egiteko

Alzarte-Errotaberriko eraikina maiatzean eraitsi zuten. Etxeak dira han egitekoak. Mendeetan errota izan zen han, eta, azken belaunaldietan, azkaratarraren okindegia, batetik, eta gozotegia, bestetik. Barruak mugiarazi zizkion eraisketak bati baino gehiagori, eta, jakina, Azkarate familiakoei, bereziki.



BERGARA

Kukubaso, bertako basoa berreskuratzea xede

Kukubaso elkarteak sortu zuten maiatzean, "ia erabat galduta" dagoen bertako basoa berreskuratzea helburu, eta banda marroiaren kalteari eta eukaliptoaren "mehatxuari" aurre egiten saiatzeko. Lurraldearen zaintza, lursailak herri-lur bihurtu, lurra erosi, jabekin hitzarmenak sinatu, eta irteerak eta landaketak egitea da asmoa.

ARRASATE

Erdigunean gaztegune bat zabaltzeko eskaera

Azken hamaika urteetan eskaini du gaztegunea Udalak Pablo Uranga kalean eta Txatxilipurdi arduratu da zerbitzuaz. Bizilagunen eta erabiltzaileen bizikidetza arazoa tarteko, Musakolara lekualdatu zuen zerbitzua Udalak. Gazteek eta gurasoek ia 800 sinadura batu zituzten erdigunean gaztegune bat eskatzeko.



Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

Urte herri on!

Hemen
garbiketak

Intxaurtxueta 16, behea
ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

ARRASATE
Udalak eta ostalariek, akordioa

Terrazei buruzko ordenantza egiten hasteko konpromisoa hartu zuen Arrasateko Udalak, Arrasateko Ostalariak elkartearekin hitzarmena sinatuta. Zazpi puntu jaso zituzten alde bien arteko akordioan.

BERGARA
Askasibarren erakusketak eta liburua

Lorenzo Askasibar eskultoreari buruzko liburua egin zuen Miguel Angel Elkoroberezibarrek, eta hark egindako brontzezko, egurrezko eta harrizko lanen erakusketak zabaldu zuten Aroztegi aretoan.

ARRASATE
Mari Jose Gil Atleta

80 urterekin, onena izan zen Euskadiko Atletismo Txapelketan, maiatzaren 16an, Durangon. Gainera, Espainiako errekorra gainditu zuen 800 metroko proban, eta 1.500ekoan.



ARRASATE
Malen Ruiz de Azua Atleta

Malen Ruiz de Azuak zilarra jantzi zuen Espainiako selekzio absolutuarekin egindako debutean. 4,35eko marka egin zuen Polonian, gehienez lau nulu egin zitezkeen txapelketan.



DEBAGOIENA
Ozen entzun zen Palestinaren aldeko aldarria

Palestina aurrera! Konplizitatea eten lelopean eta 36 eragilek deituta, manifestazioa egin zuten maiatzaren 27an Arrasaten; Arizmendiarrrieta plazan hasi eta bukatu zen. Palestinan gertatzen ari ziren gertakarien "larritasuna" ikusirik egin zuten. Oñatin elkarretaratzea egin zuten egun batzuk lehenago.



ARAMAIO
Agirre eta Abarrategi, txapelkunak bertsotan

Arabako Binakako Bertsolaritza Txapelketaren lehengo edizioa jokatu zen maiatzaren 22an eta Martin Abarrategi eta Manex Agirre bertsolariek ekarri zuten txapela Aramaiora. Abarrategirentzat lehen txapela izan zen eta Agirrek, beste txapelketaren bat irabazi izan badu ere, aspaldiko sentsazioak berreskuratu zituen.

DEBAGOIENA
Manifestazioak Maiatzaren 1ean

Langileen Nazioarteko Egunean bi manifestazio jendetsu egin zituzten Bergaran. Gazte Kontseilu Sozialista Deba Bailarak deitutakoa apirilaren 4ko Aberri Eguneetik zetorren egitarauaren barruan kokatu zuten. Ostean egin zuten Bergarako Greba Asanbladak deitutakoa, hainbat eragilek babestu zutena.

KORONABIRUSA

DEBAGOIENA

Itxiera perimetralik eta etxeratze agindurik ez

Madrilgo Gobernuak alarma egoera indargabetu zuen maiatzaren 9an, eta, ondorioz, oinarriko neurri murriztaileak bertan behera geratu ziren EAEn ere; itxiera perimetrala eta etxeratze agindua, besteak beste. Ostalaritzako, kulturako, gizarteko zein merkataritzako jarduerak 22:00ak arte luza zitezkeen.

ARRASATE
Domeka eguerdian bueltatu ziren Kooltur ekintzako emanaldiak

Egunean beharrean, domeka eguerdian bueltatu ziren Kooltur ekintzak: "Denboraldi luze eta ilun honi nolabaiteko argi izpia eman nahian". Maiatzaren 16an izan zen lehen kontzertua; Lie Detectors taldea izan zen jotzen lehena. Edukiera muga-tuagatik, sarrerak aurrez erreserbatzeko aukera jarri zuten.



ELGETA-BERGARA

Lorenzo Askasibarri omenaldia

Lorenzo Askasibarren ibilbidea jasoz Miguel Angel Elkoroberezarrek egindako liburuaren aurkezpena artistarendako omenaldi bilakatu zuten hilaren 9an. Beart Egunean omendu zuten, Bergaran.

BERGARA

Miguel Okinaren heriotza

Bergarako pintura eskolaren erreferente nagusienetakoa zena ekainaren 5ean hil zen, 96 urte zituela. Margoari eskaini zion bizitza osoa. Erretratuak, paisaiak, natura hilak... Maisutasuna azaldu zuen beti.

OÑATI

Amaia Inza Irakaslea

Zientzia Politikoko doktore Amaia Inza Bartolome oñatiarra EHUren Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanu izendatu zuten – dekanordea zen ordura arte–.



ARAMAIO

Julen Arriolabengoa Idazlea

'Ez jat garbatu' liburua argitaratu zuen Julen Arriolabengoa; Julian Unzueta, eteko osabaren, memoriak jasotzen ditu. Unzueta 2019ko maiatzean hil zen.



LEINTZ GATZAGA

Eusko Label izendapena herriko gatzari

Euskal Gatzak aurkeztu zuten Jaurlaritzak eta Hazik ekainaren 10ean Gesaltza Añanan. Gesaltza Añanako Haraneko eta Leintz Gatzagako ur gaziko iturburuetatik ekoiztutako gatzak daude Eusko Label izendapenaren barruan. Modu jasagarri eta artisauan sailkatuta eta ontziratuta dauden gatzak dira.



ARETXABALETA-ESKORIATZA

Euriteak utzitako irudi ikusgarriak eta kalteak

Hilaren 17ko euri-jasak Eskoriatzako Arizmendi-Almen ikastolan irudi ikusgarriak utzi zituen. Kiroldegi atzeko errekek gainezka egin zuen, eta suhiltzaileek joan behar izan zuten bertara, uholdea baretzeko. Hurrengo eguneko jarduna bertan behera geratu zen ikastetxean. Aretxabaletako Eroskin ere kalteak eragin zituen urak.



DEBAGOIENA

Eskualdeko baserrietara bisitak Ereindajan-ekin

Elikadura ereduan eragin, sentsibilizazio lanak egin eta kontsumo kolektiboan urratsak egiteko Elikabira kanpaina jarri zuen martxan Ereindajan elkarteak. Kanpainaren barruan, ekainaren 27an bisitak egin zituzten eskualdeko bost baserrietara; Aramaioko Atxinetara, tartean.



ARRASATE

Bailarako hamaika emakume artistaren erakusketa

Artean IIII, hamaika izara erakusketa inauguratu zuten ekainaren 4an Kulturaten. POOke antolatutako Alfonbra topaketei jarraipena emanda, Debagoieneko hamaika emakume artistak sortze prozesua kolektibotasunera eraman zuten; diziplina askotariko artistek elkarlanean sortutako obra izan zen.



MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian espezialista
Urte berri on!

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

ARRASATE

Kaitin Allende Umorista

Gasteizko Komediaaldia Umore Jaialdiaren barruan, eta 'Umorea eta osasuna' gaia proposatuta egin zuten bakarriketen lehiaketa irabazi zuen Arrasateko kazetariak.

ANTZUOLA

Eukaliptoia landatzeko debekua

Antzuolako udalbatzak eukaliptoaren landaketen inguruko moratoria ezartzeko mozioa onartu zuen ekainaren 29ko osoko bilkuran. EH Bilduren aldeko bost botoak izan zituen mozioak.

ARRASATE


Beilatokiaren kokalekuaren aurka

"10 orduan 1.055 sinadura batu ditugu, eta oraindik jendea galdezka daukagu", zioen Ignacio Zuloagako bizilagun Juan Mari Belategik. San Felipek pentsatutako kokapenarekin ez zeuden ados.

ARRASATE

Atleten lan ona Espainiakoan

Malen Ruiz de Azua –brontzea– eta Maialen Axpe –urrea– pertika-jauzilariak eta Eneko Carrascal jauzilaria –urrea– nabarmendu egin ziren ekaineko azken asteburuan jokaturako Espainiako txapelketetan.



DEBAGOIENA

Beñat Rezusta, txapeldunorde, buruz buruko txapelketan

Finalerdietan Iñaki Artolaren kontra galdu arren eta hirugarren posturako lehian Jose Javier Zabaletaren kontra irabazita, bergararrak jokatu zuen Altunaren kontra 2021eko buruz buruko finala, Artolaren lesioagatik. Ekainaren 20ko finalean, baina, 22-5 irabazi zion Amezketaoak Rezustari.



BERGARA

Manlleu-Bergara topaketak

Gure Eskuk antolatuta, Manlleuren eta Bergararen, Herrialde Katalanen eta Euskal Herriaren, arteko topaketa egin zuten, ekainaren hondarrean. Zapatu arratsaldean egin zuten ekitaldi nagusian, 2050ean irudikatu zituzten bi herriak, "herri libre" gisa. Giro beroa izan zen frontoian, eta balorazio positiboa egin zuten denek.

KORONABIRUSA

DEBAGOIENA

Maskararik gabe, aspaldiko partez

2020ko maiatza ezkerro derrigorrezkoa izan ostean, 2021eko ekainaren 26a izan zen maskararen derrigortasunik gabeko lehen eguna. Aire zabalerako eta distantzia manten zitekeen kasuetarako eman zuten Espainiako Gobernuak maskararik gabe ibiltzeko baimena.

OÑATI

Onaro: herriko telekomunikazio operadore propioa


Internet banda zabala herritar guztien eskura jartzeko sortutako telekomunikazio operadorea aurkeztu zuen Udalak ekainaren 16an. Argindar sektoreko urteetako esperientziaren ondoren, Internet zerbitzua ere herritik kudeatzeko bideari ekin zioten. Sakelako eta telefono finko zerbitzuak ere baditu Onarok.



ARETXABALETA

Herriko baserriak, izenez eta argazkiz zerrendatuta

Aretxabaletako baserriak izeneko lanean herriko hamar landa-auzoetako 137 baserriak jaso zituzten Resu Abasolok eta Jokin Antxiak. Izenak eta argazkiak batu zituzten inbentario hartan, eta egindako lana online ikusteko aukera ere jarri zuten, Aretxabaletako Udalaren webgunean sartuta.



OÑATI

Zubikoa kiroldegi berritua ireki zuten

Oñatiko Zubikoa kiroldegi eraberritua inauguratu zuten uztailaren 26an. Udal ordezkariak azaldu zuten erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta egin zituztela urte eta erdi iraun zuten lanak.

ARRASATE

Villa Amparoko ur-parkea ireki zuten

Uztailaren 2an ireki zituzten Arrasateko bi ur-parkeak: batetik, Villa Amparokoa, berria; eta, bestetik, iaz inauguratu zuten Santa Barbarakoa. Horretaz gain, Garibairainoko bidegorria ere ireki zuten.

DEBAGOIENA

Komunikazio Campusa egin zuten

Goiena Komunikazio Taldeak eta MUK antolatutako Komunikazio Campusean zazpi gazte aritu ziren, uztailaren 5etik 9ra bitartean. Azken egunean, Goienako egoitzara bisita egin zuten.

OÑATI

Xabier Gordoak Igerilaria

31 kilometroko luzeradun Ultra Ebre ibai zeharkaldian hirugarren egin zuen Xabier Gordoak uztaileko bigarren asteburuan, Katalunian. Bost ordu eta erdiko lana egin zuen.



BERGARA

Protesta, Gijongo eraso matxista gaitzesteko

Gijonen bortxatu zuten emakume bergararrari elkartzasuna adierazi eta eraso matxistak salatzen elkarretaratze jendetsua egin zuten uztailaren 26an, herriko Martxantera talde feministak deituta. San Martin plaza goraino bete zen, eta *Erasorik ez, erantzunik gabe!* leloarekin egin zuten protesta.


KORONABIRUSA

DEBAGOIENA

Autodiagnostikorako testak saltzen hasi ziren farmazietan

Koronabirusaren bosgarren olatuak gogor jo zuen Debagoiengan, eta uztailean zehar 882 kutsatu baieztatu zituzten. Hilabete hartako azken astean, autodiagnostikorako test azkarrak saltzen hasi ziren botiketan, medikuaren agindu beharrik gabe. Horretaz gain, 12 urtetik gorakoak ere txertatzen hasi ziren.



ARRASATE

Zalduspeko bus geltoki berria ireki zuten

Ekobulebar-aren lanek irauten duten urte eta erdi inguruan, erabiltzaileei gauzak errazteko eta geltoki egonkorra egoteko, Zalduspen jarri zuten autobus geltoki nagusia. Uztailaren 19az geroztik dago martxan. Hiru markesinaz dago osatuta, sei autobus hartzeko gaitasuna du, eta komuna ere badago.



ARRASATE

Arrasate Blues musika jaialdia egin zuten

Uztailaren 15ean, Arrasate Blues jaialdiaren hirugarren aldiari ekin zioten. Ibai-arte merkataria elkarteak eta Arrasateko Udalak antolatuta, musika beltzetik edaten duten bederatzita taldek jo zuten herriko zazpi txokotan aste horretan zehar, eta, horretaz gain, Jesusi Etxebarria musika irakasleari omenaldia egin zioten.

OÑATI

'Gernika' koadroaren txokolatezko erreplika ikusgai

Picasso margolariaren *Gernika* koadroaren txokolatezko erreplika egin zuten Euskal Gozogileak elkarteak, eta uztailaren 16a ezkeron egon zen hura ikusteko aukera, Oñatiko Santa Ana aretoan. Tamainak harritu zituen gehien bisitariak; izan ere, koadroak ia 8 metro ditu luzeran eta 3,5 altueran.



oerlikon

balzers

Urte
berri on!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

OÑATI

Erosketak herrian egiteko kanpaina

Erosketak herrian egiteko Tokikozale sentsibilizazio kanpaina jarri zuen martxan Oñatiko Txanda dendarien elkarteak, uztailaren 23an. Kotoizko poltsak oparitu zizkieten erosketak herrian egin zituztenei.

BERGARA

Organoa berritzeko, finantzaketa

Bergarako San Pedro elizako Stoltz Freres organoa berritzeko finantzaketa lortu zuten uztailean. Erakunde publikoen, Elizaren eta organoaren aldeko elkartearen arteko elkarlanetik lortu zuten helburua.

DEBAGOIENA

Ekiola kooperatiba aurkeztu zuten

Ekiola, herritarren kooperatiba energetikoa, aurkeztu zuten uztailaren 13an, Debagoieneko Mankomunitatean. Energia berriztagarrien aldeko trantsiziorantz urrats bat gehiago egin zuten horrela.

ELGETA

Oihana Kortazar Lasterkaria

Aneto mendira igo eta jaitsita errekor berria ezarri zuen, uztailaren 31n. 4 ordu, 40 minutu eta 23 segundo behar izan zituen ibilbide osoa egin eta erronka betetzeko.



BERGARA

Euskal Herriko udal hautetsien topaketa

Euskal Herriko udal hautetsi abertzaleen topagune izan zen Bergara, uztailaren 21ean. Duela 45 urte, Euskal Herriko ehunka udal ordezkari elkartu ziren herrian, burujabetzan aurrera egin nahi zutelako aldarrikatzeke, eta garai hartako bailarako alkateei aitortza egin zieten uztaileko egun hartan.



ARAMAIO/OÑATI

Urmuga zeharkaldiak, geldialdia eskualdean

Uztailaren 17an iritsi zen Urmuga zeharkaldia Aramaiaora, eta han, Pago Zaharrari ekitaldia egin zioten. Hurrengo egunean, Alos Quartet aritu zen, Urbian, eta, bukatzeko, Oñatiko plazako frontoian kontzertua egin zuten Pettik, Jurgi Ekizak, Maider Zabalegik eta Alex Sarduik, Et Incarnatus Orkestrak lagunduta.



Gualbi

aholkularitza

**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

URTE
BERRI
ON!!

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

ARETXABAETA

Arrainak hilda agertu ziren errekan

Abuztuaren 7an, Txakoli taberna paretik Udalera bitarte agertu ziren hilda arrainak. Bertatik behera ez zen arrain hilik agertu; bai, baina, Arrasateko San Andres auzotik aurrera. Ikerketa martxan jarri zuten.

BERGARA

Erraldoi taldekoak, Palentzian

Pandemiako lehen irteera egin zuen Bergarako Erraldoi Taldeak abuztuaren 28ko asteburuan. Palentzian izan ziren 25 bat lagun, eta dantzan egiteko aukera ere izan zuten lehenengoz.

OÑATI ETA ARETXABAETA

Pintaketa faxistak eta LGTBI fobikoak

Oñatin, Udanako begiratokian, pintaketa faxista egin zuten abuztuaren 10ean; eta Aretxabaletan aldiz, hilaren 24an, LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako pintaketak agertu ziren Kurtzebarri eskolan.

ARRASATE

Mirari Plazaola Trikitilaria

Trikitilari Gazteen 41. Txapelketa izan zen irailaren 1ean, eta han eskuratu zuen Plazaolak lehen postua, Irati Arzelusekin batera. 2018an eta 2019an ere irabazi zuten.



OÑATI

Reala eta Eibar aurrez aurre Azkoagainen

Euskal Herria Kopako hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten Realak eta Eibarrek abuztuaren 28an, eta Realeko neskak gailendu ziren, 2-1 irabazita. Egun berezia bizi izan zuen Elene Guridi oñatiarrak: Realeko talde nagusiarekin jokatzeko aukera izan zuen, bere aurreko taldearen aurka eta Oñatin bertan, etxean.



ARETXABAETA

Lehen saria eskuratu zuen Aretxabaletako tomateak bi azokatan

Larrino auzoko Larrinogari baserrian ekoiztutako Aretxabaletako tomateak bi sari garrantzitsu jaso zituen abuztuaren 28ko asteburuan Kantabrian: bata Santa Cruz de Bezanan eta bestea Torrelavegan. Hain zuzen, *Aretxabaletako tomatea* barietateari eman zioten tomaterik onenaren saria.

LEINTZ GATZAGA

Euskal txirrindularitzako ordezkariak Dorletan

Dorletako Ama Txirrindularitza Elkarteko kideek eta herritar ugari lagunduta egin zuten bisita abuztuaren 10ean. Txirrindularitzako epaile zein jarraitzaile sutsuak izan ziren Dorletan; tartean, Jesus Loroño txirrindulari izandakoaren semea. Herriko txirrindulari elkartetik aitortza egin gura izan zioten txirrindulari ohiari.





Urte berri on!



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatekoa!
IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ
JAI ZALE • DAT • ETXOSTE

ANTZUOLA**Kaxiano gogoratzeko, horma-irudia**

Eguzki auzoaren osteko zubiaren pareko horman Kaxianoren omenezko murala margotu zuten Oier Peñagarikano eta Ione Larrañaga artistek. Kaxiano Antzuolan jai zela-eta, gogoan izatea da helburua.

ARAMAIO**Alaiak erretiratuen lokala, zabalik**

17 hilabete egin zituen itxita Alaiak erretiratuen elkarteko lokalak; hain justu, 2020ko martxoaren 13tik aurtengo abuztuaren 13ra arte. Lehengo harreman sozialak berreskuratuz, pozik agertu ziren.

OÑATI**Malen Osa** Korrikalaria

Oroelgo Igoera (Jaca) irabazi zuen abuztuaren 8an Malen Osa oñatiarrak. Egin zuen lehen mendilasterketan, 1.06.18ko denbora behar izan zuen 10,7ko ibilbidea betetzeko.

**ANTZUOLA****Ekain Larrea** Korrikalaria


Abuztuaren 8an jokatu zen, Kanarietan, Espainia mailako Trail Running Txapelketa, eta Munduko Txapelketara pasatzeko txartela lortu zuen Larreak (24.01).

**BERGARA****Deialdi bereziarekin, herritar ugari animatu ziren odola ematera**

Abuztuaren 1etik 15era, 594 gipuzkoarrek eman zuten odola; urte osoko ohiko zifra bi aste haietan soilik %20 jaitsi zen. Abuztuko odol erreserbak mantentzeko 1.400 odol-emate behar zituzten, eta, egoera ikusita, "erantzun polita" izan zuen deialdi berezia egin zuen Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak.

**DEBAGOIENA****Uxue Osesen taldea garaile Plazandreak-en**

Uxue Oses oñatiarrak Aldai eta Garai izan zituen lagun abuztuaren 2an Zornotzan jokaturako pilota txapelketako finalean. Hiru partida jokatu zituzten, denera, eta Erlantz Garciak gidaturako taldeak, urdinak, eskuratu zituen txapelak. Txapeldunorde izan zen, hortaz, Reyes Azkoitia entrenatzaile bergararraren taldea, gorria.

**BERGARA****'Go!azen' telesailaren atal berriak Mariaren Lagundian grabatzen**

Begarako Mariaren Lagundia ikastolan *Go!azen* telesailaren zortzigarren denboraldiko grabaketak egiten aritu ziren abuztuko lehen bi asteetan. Batez ere, barruko eszenak grabatu zituzten eskolan, baita basokoak. Aktoreek eta talde teknikoak azaldu zuten, herrian "oso ondo" hartu zituzten.

KORONABIRUSA**DEBAGOIENA****9.000****kutsatu**

Abuztuaren 30ean, 9.000 kasu metatuen langa gainditu zuen eskualdeak. Koronabirus kasuak, uztailean atzemandakoen aldean, erdia baino gutxiago izan ziren abuztuan: 852 izan ziren uztailean, eta 354 abuztuan. Herrika aztertuta, Arrasaten 122 izan ziren, 77 Bergaran eta 61 Aretxabaletan. Oñatin ere, guztira, 53 kasu izan ziren abuztukoak. Eskoriatzan, berriz, 39 erregistratu ziren, hamar kasu Antzuolan, bederatzia Aramaion eta bost Elgetan. Abuztua "hilabete lasaia" izan zen Debagoieneko Ospitalean ere, eta irailaren 1erako 12 urtetik gorakoen %79,8k jasoak zituzten txertoaren bi dosi.

ALDEDI

Urte berri on!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

OÑATI

Sanmigeletako eraso matxista

Irailaren 25ean Oñatiko txosnagunean izandako eraso matxista salatu zuten, Txosna Batzordeak eta eragile feministek deituta. Berretsi zuten erasorik ez zela onartuko, "ez txosnagunean eta ez inon".

BERGARA

San Martin eskolako patioa, inklusibo

San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako patioa elkarlanean berritu zuten, jolas librea oinarri. Ikasleek amestutako patioen marrazkiak, maketak eta planoak egin, eta eskola komunitateak moldatu zuen.

ESKORIATZA

Askotariko musika Errekan Goran

Hamahirugarren Errekan Gora musika jaialdia egin zuten irailaren 18ko asteburuan. Uztailean egin izan dituzte ordura artekoak; aurten, berriz, irailean eta emanaldi guztiak asteburu bakarrean.

OÑATI

Instalazio berriak Aloña Mendirentzat

Instalazio berriekin ekin zion denboraldiari Aloña Mendiko futbol taldeak irailean. Aldagelak, fisioterapia gela, biltegia, arropa garbiketarako gunea eta bulegoak ditu Azkoagaingo eraikin berriak.



DEBAGOIENA

Azokak eta Tomatearen Astea, arrakastatsuak

40 bat postu eta hiru lehiaketa izan ziren Bergarako San Martin azokan, neurri bereziekin. Aretxabaletako sanmigeletan artisautza eta nekazaritza ekologikoaren azoka egin zuten, 35 postuekin. Tomatearen Astea borobiltzeko azoka izan zen. Lehenengoz egingo dako Elorregiko Sagardo Egunak ere ikusmin handia piztu zuen.

KORONABIRUSA

DEBAGOIENA

COVID-19arengatik neurri murriztaileak malgutu egin zituzten

Labiren azken bileratik 200 puntu egin zituen behera intzidentzia-tasak, eta, bilakaerak hobera egiten jarraituko zuelakoan, neurriak malgutu zituen Labik irailaren 18an. Jarduera guztien ordutegia 03:00rak arte luzatu zuten, edukierak handitu eta terrazetan hamabi laguneko bilkurak baimendu zituzten.

DEBAGOIENA

Gomez, Altuna eta Cabero protagonista Donostia Zinemaldian

Kimuak proiektuak eskuratutako *Zinemira* saria jaso zuen Esther Cabero aretxabaletarrak. Manu Gomez zuzendari arrasatearrak *Érase una vez en Euskadi* filma estreinatu zuen, eta, euskal zinemaren galaren barruan, Asier Altuna *Kixi*-ren *Hondalea* estreinatu zuten, artelanaren sorkuntza prozesua kontatzen duena.

ARETXABALETA

75. urteurrena ospatzen hasi zen UDA

1946ko irailaren 15ean jokatu zuen lehen partidua UDAk, eta, abiapuntu hartuta, 75. urteurrena ospatu du elkarteak aurten. *Herriaren hauspoa* da hautatutako leloa, "herriarendako lan egin gura izan duelako beti eta herri barik ez direlako ezer". Lehen ekitaldia irailaren 18an egin zuten, Kurtzebarriko gurutzeari argiztatuz.

OÑATI

'Gure sokaren gorularia' ikuskizuna, 50 urteak ospatzeko

50. urteurreneko ospakizunak borobildu eta amaiera emateko, *Gure sokaren gorulariak* ikuskizuna egin zuten Oñatiko Oñatz dantza taldeak hilaren 25ean. Irudi ederrak utzi zituen ekitaldiak, eta Jesus Irizar *Txutxin*-i aitortza "hunkigarria" egin zioten: lore-sorta eta makila jaso zituen taldeko dantzarien eskutik.



BERGARA

Argindar-enpresen aurka egin zuten pentsiodunek

Asteleheneroko elkarretaratzean "gogor salatu" zuten argindar-enpresa handien monopolioa eta irabaziak iazkoak baino handiagoak izatea: argindarraren faktura maitzetik %57 igo izana kritikatu zuten. Protesta-kartelak Iberdrolak Portaloian duen bulegoaren kristaletan itsatsi zituzten hilaren 14an.


BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
 Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
 44 pk
 20500 Arrasate

urte berri on!

Tel.: 945 45 01 00
 bulegoa@behialde.com



ARRASATE

Gudari Eguna, Txiki eta Otaegi oroitzuz

Euskal Herria bihotzean, Aurrera Bolie! lelopean, manifestazioa izan zen irailaren 27an. Urtero moduan, *Txiki* eta *Otaegi* oroitu, eta Agurtzane Arregi Letamendiren senideek testigantza eskaini zuten.

ANTZUOLA

Leire Galeano Pilotaria

Sanmateotako txapelketako finala poltsikoratu zuen irailaren 25ean Leire Galeano antzuolarrak. Belmonte bikotekidearekin batera, erraz irabazi zuten Adarraga pilotalekuan (18-1).



ELGETA

'Sasi artean Elgeta' komiki albuma

Bi urtean *Xabiroi* aldizkarian atalka argitaratutako lana komiki-album formatuan kaleratu zuten. Jacinto Rivas *Elgeta* trikitilaria da protagonista nagusia, eta haren lanaren erreposoa egiten du.

ARAMAIO

Aramaioko rallysprinta, nafarrentzat

la bederatziz segundoko atera zieten, irailaren, 11n Esko Motor taldeko Gorka Idigorasi eta Raul Perezi Mattin Villares eta Jon Zozaya nafarrek, eta ia 28 Gurutz Agirretxeri eta Hodei Intxaustiri.



ARRASATE

Errepresio frankista jasan zutenei omenaldia

Arizmendiarrrieta plazan egindako ekitaldi jendetsuan, bailarako herri bakoitzeko testigantza lazgarri bana plazaratu zuten irailaren 26an biktimen senideek. "Justizia, egia eta erreparazioa" aldarrikatu zuten, tropa frankistak Debagoiengan sartu zirela 85 urte bete zirela. Biktimen aldeko monolitoan loreak utzi zituzten.



ARRASATE

Presoen egoera salatzeko, elkarretaratzeak

Ehunka herritar batu ziren Monterronen irailaren 20an, Sare Herriarrak deitutako elkarretaratzean. Presoei ezarritako "salbuespenezko legea" salatzeko gain, "jasandako presio eta manipulazioa salatzeko" ere baliatu nahi izan zuten agerraldia. Sareren martxari erantzuteko, PPK eta Voxek Arrasaten ekitaldiak egin zituzten.



ANTZUOLA

Herri eskolako eraikin berria estreinatu zuten ikasleek

Hiru urteren ostean, eta 1,2 milioi euroko aurrekontuarekin, irailaren estreinatu zuten haur antzuolarrak 300 metro koadroko eraikin modernoa. Instalazioek patioa eta jangela handiagotzea eta gela, bulego eta komun gehiago edukitzea ahalbidetu diete. Ikasleak eta irakasleak "oso pozik" agertu ziren aldaketarekin.



BERGARA

20. urteurrenako erakusketa, berezia eta jendetsua

Bergarako Erraldoien Taldeak iaz bete zituen 20 urte, baina pandemiagatik atzeratu egin behar izan zituzten urteurren borobila ospatzeko ekitaldiak. Horien baitan, *Erraldoiak eta Bergara: jaiak, musika, herria* erakusketa arrakastatsua egon zen ikusgai Aroztegin: lehen asteburuan 673 lagun pasa ziren.



Buztinzuri 6. behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Urte berri on!



DEBAGOIENA

Autobus gidarien lanuzteak

Gipuzkoako Avanza enpresako autobus gidariek lanuzteak egin zituzten urriaren 22ko astean, "era guztietako erasoak" jasaten dituztela salatzen. Euren segurtasuna bermatzea eskatu zuten.

BERGARA

Egia eta justizia eskatu zituzten

Duela 85 urte tropa frankistek Osintxun fusilatutako Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak, Ricardo Zangitu, Rufino Akizu eta Jose Garaikoetxea omendu zituzten urriaren 24an. Egia eta justizia eskatu zuten.

ARETXABALETA

Aitor Antxia Idazlea

Urriaren 16an aurkeztu zuen Antxiak *Historia de las iglesias y ermitas de Aretxabaleta* liburua, Arkupe kultura etxean. Interesa piztu zuen argitalpenak herritarren artean.



ARRASATE

Kanpanzarko errepidea handitzea

Sara merenderotik Kanpanzarrerainoko zatia zabaltzeko proiektua aurkeztu zuen Aldundiak urriaren 27an. 1,2 milioi euroko aurrekontuarekin, 2023ko udaberrirako prest izatea espero dute.



BERGARA

Intsumisioaren gaineko erakusketa

Urriaren 1ean inauguratu zuten, Aroztegi aretoan, Bergarako intsumisio mugimendua jasotzen duen erakusketa. Argazkiak, kartelak, kamisetak, txapak... prestatu eta ikusgai jarri zituzten. Gainera, urriaren 13an, *Intsumisioa Bergaran. Desobediencia bide bat* dokumentala estreinatu zuten.



DEBAGOIENA

Ospitalea berrituko dutela agindu zuten

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak urriaren 6an iragarri zuten 24 milioi euroko inbertsioa egingo dela Arrasateko ospitalean; eraikin zaharra bota eta eraikin nagusia handituko dute, baita 100 plaza inguru izango dituen lurpeko aparkalekua eraiki ere.

ARETXABALETA

Mundukideren VI. lasterketa solidarioa egin zuten

250 bat lagunek parte hartu zuten urriaren 17an Mundukidek antolatuta egin zen kooperatiben arteko lasterketa solidarioa. Mundukidek egiten duen lanari ikusgarritasuna emateko balio du lasterketak. VI. lasterketa solidarioan, emakumezkoetan MU nagusitu zen eta gizonezkoetan Fagor Electronica.

ANTZUOLA

Puntaik Punta jaialdia Antzuolan egin zuten, urriaren 18an hasita

Debagoieneko bidezidorren jaialdia Antzuolan egin zuten urriaren 18tik 24ra bitartean. Aurtengoa bosgarren edizioa izan da. Pou anaien proiektzioa, *Mendi-film* emanaldia, Mikel Lizarralde esklerosi anizkoitzaren inguruan egindako hitzaldia... Natura eta kirola baztereko ekitaldiak, azken finean.



OÑATI

Iñaxio Ibarandok azkeneko zuzendu zuen musika banda

Urriaren 3an zuzendu zuen Iñaxio Ibarandok azkeneko Oñatiko musika banda. Zubikoako kantxa berdean izan zen, Errosarixoko Eguneko kontzertuan. 6 urterekin hasi zuen bandako ibilbidea Ibarandok, eta zuzendari izan da 42 urtez. Aitor Biain Bidartek hartu dio lekukoa zuzendari lanetan.



MUJIKA

HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Uste berri on!

ARETXABALETA

UDArek historia, ikus-entzunezkoan

Aretxabaleta Kirol Elkartearen 75. urteurrenaren harira egindako *Herriaren hauspoa* dokumentala urriaren 15ean estreinatu zuten, Arkupen. Hara joan zirenen artean "hunkituta" agertu ziren asko.

OÑATI

Jabier Erostarbe Ilustratzailea

Ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoak erakusketa zabaldu zuten Oñatiko kultura etxean, bere ibilbidean egin dituen lanak erakusteko. 26 urte pasa dira estudio propioa zabaldu zuenetik.



LEINTZ GATZAGA


Gatz Eguna ospatu zuten

Askotariko ekintzekin ospatu zuten, urriaren 17an, Gatzagan Gatz Eguna. Museo inguruan gatz ardatz duten ekintzak antolatu zituzten; eta herrigunean, berriz, azokak, tailerrak eta jolasak.

DEBAGOIENA

Manex Balerdi eta Ander Murua Pilotariak

Balerdi antzuolarrak eta Murua arrasatearrak Munduko Txapelketa irabazi zuten, 23 urtez azpikoen kategorian. Urriaren 23an Valladoliden izan zen finala.



ARRASATE

Amerika elkarteak aurkeztu zuten

Amerika elkarteak aurkeztu zuten urriaren 15ean, Kulturaten. Elkartearen helburu nagusiak kalitatezko lana sortzea eta etorkinak euskaldunen artean integratzea dira. Nabarmendu zuten Latinoamerikako 3.000 migratzaile daudela, gaur egun, Debagoiengan bizi zirela. Oztopo ugariekin topo egiten dutela ere nabarmendu zuten.



DEBAGOIENA

Energia berriztagarriak Leintz bailararako

Energiaren Euskal Erakundeak eta Ekiola kooperatibak Leintz bailarako Ekiola aurkeztu zuten urriaren 14an, Arrasaten. Zero kilometroko energia berriztagarria sortzea izango da proiektuaren helburua eta Garaia Berrikuntza Guneko lurretan, LKSren egoitza parean, kokatuko dute eguzki-parkea.

ARRASATE

Goienakide kanpaina aurkeztu zuten Goienak Arrasaten

0km: Batzen gaituen distantzia leloarekin aurkeztu zuten Goienak Goienakideak sustatzeko kanpaina berria. Herritarren, erakundearen eta Goienako lankideen aurrean egin zuten aurkezpena, urriaren 20an. Euskararen normalizazioaren eragitea eta komunitatea errotzea, sendotzea eta handitzea dira helburu batzuk.



DEBAGOIENA

Finantza alorrean euskara sustatzeko akordioa sinatu zuten

Uemak, Laboral Kutxak, Kutxa-bankek eta Bankoak udalerrri euskaldunetako 44 alkaterekin batera finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten. Ekitaldia Bergaran sinatu eta aurkeztu zuten, urriaren 20an. Udalerrri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute.



DEBAGOIENA

Ormaetxeari buruzko liburua

Jose Mari Ormaetxea Mondragoneko kooperatiben mugimenduaren sortzaileetakoari buruzko liburua aurkeztu zuten Donostian: *Ormaetxea. Kooperatibismoa, bizitza osoaren ardatz.*

ARRASATE

Ia 4.000 sinadura TA0ren aurka

3.782 sinadura bildu zituzten ezarritako TA0 ereduaren kontra eta hainbat herritarren babesarekin entregatu zituzten BAZen, azaroaren 22an. Arrasateko 50 komertziotan batutako sinadurak ziren.

OÑATI

Aitor Biain Musikaria



Iñaxio Ibarrendoren lekukoa hartuta, Santa Zetilia bezperan zuzendu zuen lehenengo aldiz herriko musika banda Aitor Biain oñatiarrak, Zubikoako pilotalekuan.

ARRASATE

Gorpua Deba ibaian

Bezperan desagertutako 32 urteko gazte arrasatear baten gorpua agertu zen Deba ibaian, Epeleko araztegi ondoan, azaroaren 30ean. Suhiltzaileen urpekari batek atera zuen gorpua uretatik.



ARRASATE

1980ko garaia Ez Donk Amaitu ekimenak

Erakusketa, Biona tabernara bisitak, solasaldiak, kontzertuak... antolatuta zituzten Ez Donk Amaitu ekimenaren barruan. 80ko hamarkadako mugimendu sozialak, gatazka politikoa, egoera ekonomiko larria eta drogak eta horiek eragindako ondorioak jaso zituzten, besteak beste, irudietan eta bideoetan.



DEBAGOIENA

Indarkeria matxistaren aurkako aldarria

Debagoieneko herri guztietan hainbat ekintza egin zituzten azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean. Emakumeen aurkako abusuak salatzea eta gaitzestea zen helburua, eta ozen entzun zen emakumeen aurkako gaitzespena bailaran. Argazkia Arrasaten egindako manifestazioan ateratakoa da.

KORONABIRUSA

DEBAGOIENA

Asko hazi zen intzidentzia-tasa eta kutsatu kopurua

Hilabetean 500 puntu igo zen intzidentzia-tasa, eta kutsatu kopurua asko hazi zen azaroan. Debagoieneko egoera ere okertzen joan zen egunetik egunera azaroan, eta, Leintz Gatzaga salbu, bailarako gainontzeko herriak eremu gorrian sartu ziren hilabetearen amaieran. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Eusko Jaurlaritzari *Covid ziurtagiri digitala* aurkezteko beharra ezartzeko eskaera ukatu egin zion, baina Auzitegi Gorenak onartu egin zuen hileko azken egunean. Bestalde, irailaren 6an baliogabetutako osasun larrialdi egoera berriz aktibatzeko asmoa adierazi zuen Jaurlaritzak.



LEINTZ GATZAGA

Etenaldiaren ostean, indartsu bueltatu zen San Milixan azoka

Arropa, bitxiak, saskiak, serigrafia, panpinak, larrugintza... Askotariko postuak izan ziren, etenaldiaren ondoren, azaroaren 14an egin eta indartsu bueltatu den Leintz Gatzagako San Milixan azokan. Hemeretzi postu jarri zituzten, guztira, kanpotik etorritakoak asko, baina bertakorik ere ez zen falta izan.

BERGARA

Larramendiko planta "ezin" onartu Udalak, "berme barik"

Paper industriako hondakinak tratatzeko planta egiteko asmoa agertu zuen Valogreen Paper enpresak, eta Bergarako Udalak ez zuen bermerik ikusi obra baimena onartzeko; auzotarrek helegiteak aurkezteko sinadura bilketa hasi zuten. Elkarretartze jendetsua egin zuten, eta mahai-ingurua antolatu.



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

Lan aholkularitza

Kontabilitatea

Zerga aitortpena

Urte herri on!

Hidalgo
ABOKATUAK ETA
AHOLKULARIAK

Errementari plaza 2-3 behea, • OÑATI

BERGARA**J.M. Elexpuru** Korrikalaria

Espainiako duatloi txapelketa irabazi zuen Juan Martin Elexpuru uberarrak, Sorian, 70 urtetik gorakoan mailan. 10 kilometro korrika, 40 bizikletan eta bost korrika egin zituen.

**ARRASATE****Txomin Iturberi buruzko liburua**

Txomin. Aurrera bolie! izenburua duen liburua idatzi du Jokin Urainek, ETAKo kide eta buruzagi historiko arrasatearraren inguruan. Azaroaren 23an aurkeztu zuten; goraino bete zen Kulturateko areto nagusia.

BERGARA**Maddi Berrocal** Pilotaria

Promes mailako Bergara Hiria pilota txapelketako finala irabazi zuen Maddi Berrocalek, 22-7, Enara Gaminderekin biote eginez. Arraiza eta Galeano, antzuolarra, izan ziren aurkariak.

**ARRASATE****Tokikom sariak**


Sakanako *Guaixe* aldizkaria, Hego Uribeko *Geuria*, Goierri irrati-telebista eta *Karkara* aldizkaria izan dira aurtengo Tokikom sarietako irabazleak. Garaia Berrikuntza Gunean izan zen ekitaldia, seigarrenez.

**ARRASATE****Frankistek hildako udal langileei omenaldia**

Tropa Frankistak 1936an Arrasaten sartu zirenean erail zituzten hiru udal langile omendu zituzten Memoriaren Egunean, azaroak 10. Arrasateko Udaleko Bizikidetzak Batzordeak adostuta, Jesus Uranga Urrutiaren, Agustin Aranburu Zabaletaren eta Gregorio Gonzalez Rubioren aldeko oroimen eta aitortza ekitaldia egin zuten.

BERGARA**Labegarietako rokodromoa inauguratu zuten**

"Gustura" gelditu ziren Labegarietako rokodromo berriak duen itxurarekin bai udal ordezkariak eta baita Pol-Pol Mendi Taldekoak ere. Euren inauguratu zuten. Rokodromoa eskalatzailen arteko harremana mantentzeko topagune bat eta jende berria ezagutzeko lekua ere badela adierazi zuten.

**ARETXABALETA****Institutuaren 25 urteak erakusketa baten jaso zituzten**

Kurtzebarri Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko lehen ekitaldia azaroaren 18an egin zuten, argazki erraldoia aterata. Ibilbide horretako pauso eta bizipen asko eta asko dituzte jasota argazkietan eta bideoetan, eta horiek guztiak ikusgai jarri zituzten Arkupen egindako erakusketa batean.

**ARRASATE****Del Camporen 'Serendipia' filmak, Urrezko Antzara**

Euskal Zine Bileraren 44. edizioan, film onenaren saria jaso zuen Iban del Campo Uribarren arrasatearrak zuzendutako *Serendipia* film laburrak, "zinemagintzaren mekanismoa koherentzia osoz praktikan ipini duelako". Amancay Gaztañaga eta Joseba Usabiaga dira aktoreak eta Silvia Rey, berriz, gidoigilea.

**OÑATI****'Appa hi!' aplikazioa, hitanoa ikasteko**

Oñatiko hitanoa ikasteko aplikazioa da *Appa hi!* Bost astez, egunero ariketa bat jartzen dute, eta azalpenak eta aditz horren adibideak datozen bideoak ere eskaintzen ditu. Badiharduguk garatu du, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean, eta Oñatiko Udalarari esker. Aplikazioa doakoa da.

itesa
Ute berri on!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

BERGARA

'Larramendi auzia'

Dikar enpresak erabaki zuen Bergararik Arrasatera joatea –Garagartzara, Fagor Etxetresnak zegoen lekura–, eta Larramendiko industrialdera joatea baztertu, Valogreen bertara joatekoa zelako.

OÑATI

'Arantzazuko benta' liburuxka

Goikobentaren historia liburu baten batuta aurkeztu zuten: *Arantzazuko Benta*. Musikarekin girotutako aurkezpena izan zen, eta Jose Ramon Arrazolak egin zuen aurkezpena.

DEBAGOIENA

Gure Eskuren adierazpena

Gure Eskuk bultzatuta, Arantzazuko Adierazpena aurkeztu zuten abenduaren 18an Gandiaga Topagunean, Euskal Herriko "gehiengo sozial bat ordezkatzeko" 100 norbanakoren sinadurapean.

BERGARA

Alai Taldeari omenaldia

Alai Taldea omendu zuten San Antonioko Napar Ferian, otxotearen 50. urteurrenean. Egun horretan urtero abesten dute, baina aurten, abestu barik, omenaldia jaso zuten auzoko elkartearen eskutik.



DEBAGOIENA

Deba ibaiak eta errekek gainezka egin zuten


Abenduaren 9ko eta 10eko euriteen ondorioz, gainezka egin zuten Debagoieneko hainbat errekek. Uholdeak izan ziren nagusi, baina lur-jausiak, bide mozketak eta istripuak ere izan ziren beste hainbat txokotan. Bergara izan zen herririk zigortuena; arazo gehien Zubietan, Ibaiondon –argazkiko irudia– eta Osintxun izan zituzten.



ANTZUOLA

Harrera etorkinei

Migratzaileen Nazioarteko Eguna baliatuz –abenduak 18–, ongietorria egin zieten hainbat etorkini Antzuolako udaletxean. Harrera protokolo berria aurkeztu zuten, inklusioa sustatzeko asmoz. Argazkian, Jamila Raghoubn marokoarra, Sabina Collrani nikaraguarra, Gabriela Vinaccio argentinarra eta Claudia Baez boliviarra.



ARETXABAETA

Errespetuaren gaineko filma Aratzen eskutik: 'Respect'

Aratz elkartek errespetuaren gaineko film laburra aurkeztu zuen abenduaren 17an Arkupe kultura etxean: *Respect*. Aratz elkarteko hainbat kidek eta Atzegiko etxean bizi diren zenbaitek egindako film laburra estreinatzeko bi emanaldi egin zituzten; errespetua gai duen 25 minutuko film laburra da.

OÑATI

'Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak' erakusketa

Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak erakusketa eta argazki-liburua aurkeztu zituen, kultura etxean, Oñatiko Artixa taldeak. Batez ere, XX. mendeko argazkiak batu zituzten erakusketan, 1910. urtekoa zaharrena. 50eko eta 60ko hamarkadako argazkiak batu, eskaneatu eta ondo jaso zituzten; 400 argazki inguru.



OÑATI

Oñatiarrek irabazi zuten Gipuzkoako pilotari txapelketa

Abenduaren 17an, Gipuzkoako eskupilota txapelketako finala Bergarako eta Oñatiko pilotarien artean erabaki zuten Oñatiko Zubikoako pilotalekuan. Gipuzkoako pilotari txapelketa Maddalen Etxegarai eta Uxue Oses oñatiarrek irabazi zuten, Maddi Barrocali eta Arrate Bergarari 22-9 gailenduta.



BERGARA

Langile bat hil zen Ederlanen

44 urteko langile bat hil zen, lanean ziharduela, Bergarako Fagor Ederlanen. LAB sindikatuak salatu zuen lan istripu "ez traumatikoa" hil zela 44 urteko markinarra.

ARRASATE

Akordeoi lehiaketa

Piotr Motyka akordeoilari poloniarak irabazi zuen Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa. Motyak 46,90 puntu lortuta jantzi zuen txapela, punta-puntako sei akordeoilariren arteko lehiaketan.

ARRASATE

Sexologia Zerbitzuak, 25 urte

GIBaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin batera, 25 urte bete zituen Arrasateko Sexologia Zerbitzuak. Hala, kalera irten eta herritarrei sexualitatearen gaineko informazioa ematen aritu ziren.

BERGARA

Iñigo Arzelusentzat txapela

Abenduaren 17an jokatu zen Bergarako Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta txapelketa irabazi zuen Iñigo Arzelusek, finaleko buruz burukoan Enaitz Alustizari gailenduta.

 **KORONABIRUSA**


DEBAGOIENA

'COVID ziurtagiri digitala', ezinbestekoa

Abenduaren 4tik aurrera *COVID ziurtagiri digitala* eskatzen hasi ziren gaueko aisialdigune eta jatetxeak. Iñigo Urkullu lehendakariak Labiren aholku batzordeko bilerako hitzartzean adierazi zuen "ziurtagiria erabili ahal den espazio guztietan erabiltzea" zela Eusko Jaurlaritzaren helburua.



ARRASATE

TAO sistema martxan jarri zuten

Abenduaren 4an ezarri zuten TAO sistema Arrasaten. Zortzi barrutitan bereizitako bost tarifa mota jarri zituzten, eta, hain zuzen ere, domeketan eta jaiegunetan zerbitzua abian egongo ez dela aintzat hartuta, sistema berria abenduaren 7an jarri zuten guztiz martxan. Hala ere, erabiltzaileek ikasi bitartean, isun gabe hasi zen zerbitzua.



ARRASATE

'Lezetxiki. Neandertalen lurraldea' erakusketa

Lezetxiki. Neandertalen lurraldea erakusketa ireki zuten Arrasateko Kulturategiaren klausuraan. Garagartzako koban eta baita inguruko zein mundu zabaleko txokoetan bizi izandako espeziea hobeto ezagutzeko erakusketan, ilustrazioak, az-tarnak, mapak eta informazio ugari jarri zituzten.



DEBAGOIENA

COVID-19aren aurkako txertoak haurrei

COVID-19aren aurkako txertoa jaso zuten hilaren 18an, zapatua, 9 eta 11 urte bitarteko hainbat debagoiendarrek. Arrasateko osasun etxean zapatu goiza normal hasi zuten eta ez zen jende pilaketarik sortu. Hiru gela egokitu zituzten horretarako, eta txandakatuta sartu ziren horietara umeak, gurasoen laguntzarekin.

HERRIA

12.191**positibo**

12.000 kutsaturen langa gairiduta, intzidentzia-tasa 2.500etik gorakoa zen Debagoiengan abenduaren 20an; pandemia hasi zenetik bailarako herritarren %18,81ek harrapatu zuten COVID-19 gaitza. Aste berean, gainera, 200 positibotik gora erregistratu ziren bailaran, egun bakarrean.

OÑATI

Natur Eskola berritua inauguratu zuten abenduaren 21ean

2018an hasi zituzten Oñatiko Natur Eskola birgaitzeko lanak, eta, pandemia tarteko, behin lanak amaituta, modu ofizialean abenduaren 21ean ireki zizkieten herritarrei ateak. Udal ordezkariak bisita gidatua egin zieten birgaitze lanetan lagundu duten Oñatiko hainbat eragile-ri, eta baita herritarrei ere.

OÑATI

Altsasuko auzipetuek bizitakoaren berri eman zuten Oñatin

2016ko urriaren 15eko gertakariengatik zortzi gazte auzipetu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, eta horietako bi, Adur Ramirez de Alda eta Jokin Unamuno, Oñatin izan ziren abenduaren 1ean, azken bost urteotan bizi izandakoa kontatzen. Santa Anako solasaldia Jon Irizar kazetariak gidatu zuen.



Naiara Goia

Gizartea berritzen, Arantzazutik

Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategiak martxoaren 25ean egin zuen aurkezpena jendearen aurrean Gandiaga Topagunean. Arantzazu Gaur Fundazioak bultzatutako laborategiak urte emankorra izan du, Naiara Goia Imaz (Segura, 1978) zuzendariaren gidaritzapean. Haren berbetan, "euskal gizarteak izango dituen erronka konplexuei molde berriekin" erantzuteko sortu da Arantzazulab, eta hainbat ekimen bultzatu ditu lehen hilabeteotan, erakunde publiko zein gizarte zibilekoekin.

Intza, Arantzabal eta Sarasua

Badira beste izen propio batzuk 2021ean nabarmendu direnak: Amaia Intza (Oñati, 1973) EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanu izendatu dute ekainean; Iban Arantzabal (Elgeta, 1975), Tokikom elkarteko presidente apirilean; eta Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) Euskaltzain Urgazle azaroan.



Joxean Alustiza

Euskara, fabriketan ohiko

Euskal kooperatiba talde industrial handieneko, Fagor Taldeko, lehendakaria da Joxean Alustiza. 10.000 langile, zortzi kooperatiba, hiru zentro teknologiko eta hogeitaz filial atzerrian. Horiek dira Fagor Taldearen zerbaki borobilak. Baina hori baino askoz gehiago da Fagor. Negozio eta aberastasun iturri izateaz gain, hainbat gizarte proiekturen gidari.

Abbadia saria

Ardura soziala du tokiko komunitatearekin –Debagoiena 2030–; ardura soziala hezkuntzan –Gizabidea–; ardura soziala garapenarekin –Mundukide–; ardura soziala euskararekin –euskara planak–. Eta, hain justu ere, euskararekiko duen arduragatik, fabrikak eta lan mundua, oro har, euskalduntzen aitzindari delako, irabazi du aurten Abbadia saria. Datorren urte hasieran jasoko du sari hori Fagor Taldeak, Gipuzkoako diputatu nagusiaren eskutik. Han izango dira Leire Okarantza taldeko euskara arduraduna eta Joxean Alustiza presidentea.

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako prezioetan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenerik
larunbatara
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolezio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK



Denboraldi borobila edin du Malen Ruiz de Azua (Arrasate, 1995) pertika-jauziko atletak. Beste urte batzuetan ez moduan, aurten bai pista estalian eta baita aire zabalean ibili da ondo. Txapelketak irabazi ditu –bederatzi, guztira–, nazioarte mailan podiumeko postuetan egon da, eta, are garrantzitsuagoa dena, marka pertsonalak ondu ditu. Neguan, pista estalian, Donostian jokatu zituzten Euskadiko Txapelketetan eman zuen lehenengo abisua (4,41: urrea), baina puntu gorena Madrilen erakutsi zuen otsail amaieran, Espainiako Txapelketa absolutuan 4,43ko marka eginda; urrea han ere.



Europar zilarrezkoa

Chorzown (Polonia), Europako Txapelketa absolutuan, zilarrezko domina jantzi zuen (4,35), eta horrela borobildu zuen denboraldia. Japoniako Olinpiar Jokoetan egotea ez du lortu, baina 4,47ko marka pertsonala egin du.

Malen Ruiz de Azua

Pertikarekin goi-goian



Manu Gomez

1980ko Arrasate aztoratua

Debagoieneko hainbat herritan errodatutako *Érase una vez en Euskadi* filma zinema areto komertzialetan estreinatu da udazkenean, aurretik Donostia Zinemaldian egin ostean. Manu Gomez (Arrasate, 1973) zuzendariak gaztaroko bizipenak ditu abiapuntu 1980ko Arrasate aztoratu hura irudikatzen. Filmarekin bete-beteta zen Amaia antzokira etorri izanak "ezin zoriontsuago" egin zuela aitortu zuen azaroan.

Zinema, osasuntsu

Asier Altuna *Hondaleak* dokumentalarekin –Donostia Zinemaldian estreinatua– eta Iban Del Campo –Lekeitioko Euskal Zine Bileran Urrezko antzara jaso du azaroan *Serendipia* film laburragatik– ere nabarmendu dira 2021 honetan. Baita Kepa Errasti –Donostia Antzerki Saria jaso du *Fadoak* lanagatik– eta Aitor Biain –Tolosako abesbatzen lehiaketan lehen saria Euskal Herriko Gazte Abesbatzako zuzendari moduan eta Oñatiko Musika Bandako zuzendari kargua hartu berri–.

GOIZPERREK

GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE GUZTIOI

URTE BERRI ON!

2022

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Inhiztadura • Industrialia • Bioteknologia

Indarkeria matxistak drama lazgarria izaten jarraitzen du, eta asko hazi dira aurten Debagoien erasotutako emakumeen kopurua eta haiek pairatutako erasoak. Urtarrila eta iraila arteko epean, 90 emakume izan dira aurten indarkeriaren biktima, aurreko urteko epe berean baino %58 gehiago; eta haien kontrako erasoak ere nabarmen hazi dira, 107 zenbatzeraino, %73 hazita. Bergaran eta Arrasaten izandako hazkunde nabarmenari zor zaio gorakada, batez ere; Bergaran, adibidez, bikoiztu egin zen erasotutako emakume kopurua, 13tik 25era, eta ia hirukoiztu erasoak, 13tik 34ra.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza eta horren ondoriozko indarkeria egiturazko arazo, oraindik; luze doan koiuntura da koronabirusarena, luze doana eta egiturazkoak diren azpizokoetarako baliatzen ari dena zenbait, Mikel Irizarrek urteari egindako erreposoan dioenez: "Niretzat, 2021eko titular nagusia da pandemia bortitz eta hilkorra nola baliatu duten eliteek euren aberastasuna eta boterea areagotzeko. Munduan aberatsen ziren askoz aberatsago dira orain, eta demokratikoki hautatutako politikariek ez dute indarrik haien desmasiak zapuzteko. Argi ikusi da txertoen kudeaketan Europako agintari gorenak ere farmazia industriaren esanetara ibili direla, prezio nahiz epeetan; hain menpekotasun lotsagarrian, bi aldeen arteko tratu idatzizkoak zentsuratuta argitaratu behar izan baitituzte.

Beste adibide bat, ezin larriagoa, argindarrarena izan da. Inoiz baino beharrezkoagoa zenean, inoizko preziorik altuenean jarri dute hornitzaile handiek, aitortu ezin diren trikimailuak

Klimaren gaiari heldu ezean, ez dago besterik

2021. urteari erreposoa egiten hasita, mundu mailako gaiari heldu die Juanjo San Migel kazetari arrasatearrak, politika kontuei Maialen Arratibelek eta gizarte eraldaketarekin lotutakoak ditu hizpide Mikel Irizarrek / **Julen Iriondo M. de Zuazo**

baliatuta. Eta gobernuek kargu hartzeko imintzioa egin diete-nean, mehatzuka oldartu dira, hautetsi demokratikoak txotxongilo bihurtuz. Birus honek, baina, badu txerto oso eraginkorra: komunitate-eraketa energia sortzeko eta kontsumitzeko, haiengandik deskonektatuta. Norabide horretan da albiste bikaina Ekiola ekimena Debagoienean ere hedatzea, lehen kolpean 400 familia deskonektatuko dituen proiektuarekin.

Oro har, botere gero eta elitistagoi aurre egiteko erremedio bakarra da gizartea indartzea eta aktibatzea. Eta hemen ere oso pozgarria da Arantzazulab ekimena abiatu izana, Gipuzkoa eta Euskal Herria jomugan. Hain zuzen, herritarrek eta gizartea mugiarazteko dinamika eta tresna berritzaileak eskainiko ditu, eta hori baliatu beharko genuke agenda publiko-soziala finkatzeko eta gobernatzeko orduan gehiengo oso zabalak eta indar-

tsuak sustatzeko, komunitate ahaldunduen sareak eraikita posibleago izan dadin elite xurgatzaileak bridatzea". Eraldatzeko asmoz dihardute Bergaran 2030 Egin herrixa ekimenarekin, Arrasaten mugikortasun arloan izandako aldatetekin eta Oñatin Onaro telekomunikazio operadorea sortuta ere, adibidez.

**INDARKERIA
MATXISTAREKIN
LOTUTAKO DATUEK
GORA EGIN DUTE
NABARMEN**

**"ELITE
XURGATZAILEAK
BRIDATU" BEHARRA
AZPIMARRATZEN DU
MIKEL IRIZARREK**

Gasteiz eta Madril

Etorkinen dramak ere ez du etenik, munduan. Euskal Herrira, euren herrialdeetatik alde egindako pertsonak zekartzan orain arte; aurten, hilotzak ere bai. Bidasoan itotakoez eta Ziburun trenak harrapatutakoez oroit.

Frantziako Konstituzio Kontseiluak hizkuntza gutxituen legearen artikulua batzuk balio-gabetu zituen. Oztopoak bainoago, erraztasunak behar ditu euskarak. Nafarroan, hainbat lanpostu publikotan eskatu ez, ezta puntuatu ere, eta bai, aldiz, alemanak. Irungo Udaltzaingorako zenbait lanpostutarako hizkuntza eskakizuna ere bertan behera utzi zuen epaitegiak; diskriminatzailea omen euskaraz ez zekiten hautagaien zat.

Eusko Jaurlaritzak eta EH Bilduk akordioa egin dute 2022ko aurrekontura begira; koalizioaren abstentzioa, Jaurlaritzak haren zenbait proposamen aintzat hartzearen truke. Eta berria da hori.

Madrilen ere, aurrekontua aurrera, Sanchezek inbestiduran alde izan zituen alderdien oniritziarekin, euskal alderdienarekin, besteak beste. Gai horri heldu dio, 2021. urteari buruz galdetuta, hango egunerokoa jarraitzen duen Maialen Arratibel kazetari arrasatearrak, "negoiazioetan eta zuzenketak onartzeko moduan berritasunak" aipatuz: "EAJk galdu egin du, neurri batean, behintzat, gaurdaino Kongresuan izan duen erreferentzialtasuna, EH Bilduren eta ERCren mesedetan. Bada, horrek izan dezake gerora ere bestelako ondorioirik; alegia, PSOEek koalizio abertzalea lehentasunezko bazkide gisa aitortzen badu Madrilen, aliantza politikoak aldatu egin daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan ere, Jaurlaritzara begira jarrita".

Arratibelek dio "bizpahiru" urtez bidea "urratsez urrats" egin duela EH Bilduk: "Egon dira, batetik, etengabeko hartu-emanak Gobernuako ministroekin eta PSOEko zein Podemosko agintariekin; bestetik, esanguratsua izan da, oso, koalizioak Gobernuaren ekimenak hobetzeko eta onartzeko izan duen borondatea, oztopo izatea baztertuta; eta, azkenik, urriaren 18an ezker abertzaleak egin zuen adierazpena katebegi garrantzitsua izan da, zalantzarik gabe, bi aldeen arteko harremanak fruituak eman zitzaiz".

Hezkuntza Lege berria, Mozal legea, pentsioen erreforma, funtzio publikoaren egonkortasunerako legea, lan erreforma... aritu eta ari dira lantzen Gasteizen eta Madrilen. Lan erreforman jarri du fokua Maialen Arratibelek: "Urrirako nahiko aurreratuta zituzten lan guztiak, baina negoziaketan sartu zuen Pedro Sanchezek Nadia Calviño, Eko-

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com





Arantzazulab ekimenaren aurkezpena, martxoan.



Jaurlaritzako eta EH Bilduko ordezkaritza, EAEko aurrekontuaren negoziaketetan.

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Argindarra

Etengabeko gorakada izan du prezioak 2021ean.

Korrika

Udaberriko zita bertan behera geratu zen.

Indultuak

Kataluniar politikariak aske, ekainean.

Bortxaketa

Lau gizonen bi neska bortxatu zituzten uztailean Gijonen; bat, bergararra.

La Palmako sumendia

Irailean erupzioan sartu, eta egoera eta irudi ikaragarriak utzi ditu.

Etorkinak

Hiru lagun hil ziren urrian Ziburun, trenak harrapatuta.

ETAren biktimak

Haien minak ez zuela "inoiz gertatu behar" adierazi zuen ezker independentistak.

COP26 goi-bilera

Azaroan egin zen, Glasgown, behar besteko emaitzarik gabe.

Akordioa

EAEko aurrekontuaren inguruan adostasuna lortu zuten Jaurlaritzako eta EH Bilduk abendu hasieran.

- Ibargarai 24
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:
San Lorenzo pol. 9
Amillaga 18
Tel.: 943 76 99 34
BERGARA

Ongi etorri 2022



nomia presidenteordea. Bistan da Espainiako presidentek ez zuela erreformaren eguneratzea Lan ministro Yolanda Diazen esku utzi nahi, eta, hari muga jartzeko, PSOEko agintari liberalenetako bat sartu du tartean".

Arrasatearraren ustez, bi izan dira lan merkatuaren araudia eguneratzeko oztopo nagusiak: "Alde batetik, Diazek muga zorrotza jarri nahi dio behin-behinekotasunari, %15era mugatuta enpresen behin-behineko langileak, nahiz eta salbuespenak onartu turismo eta nekazaritza sektoreetan. Bada, hori zurrunez jo du Calviñok; enpresariei malgutasun handiagoa ematearen aldekoa da. Eta, bestetik, eztabaidagai dituzte lan hitzarmen eragina eta ultra-aktibitatea: Lan ministroak nahi du sektoreko hitzarmenei ematea lehentasuna, enpresako enpresari, eta hitzarmen berri bat adosteko epemuga igarota ere, ordura artekoa indarrean mantentzea. Baina hori guztia CEOE patronalak ez du begi onez ikusten, eta Calviñok, modu batera edo bestera, horien interesen alde egiten du negoziaketetan.

Ez dira txikikeriak arestian aipatutakoak, Espainia osoko langileen baldintzei eragingo baitiete. Eta, hain zuzen, duen garrantziagatik bihurtu da PSOEren eta Unidas Podemosen arteko borroka arantzatsuena. Oso litekeena da sozialistak irabazten ateratzea, azkenean, eta, hori hala izatekotan, moreek izango dute zer leporatu koalizio-kide dituztenei hurrengo hauteskunde kanpainan". Bide batez, PSOEren ezkertera Yolanda Diazek lidergoa hartu izana eta askotarikoak biltzeko agertzen ari den asmoa azpimarratu ditu Arratibelek.



Glasgowko COP26 biltzarren testuinguruan izandako protesta bat.

Hiru 'gerra'

Negua bero hasi zen AEBetan, Trumpek boterea uzteko gogorik ez eta urte hasierako Kapitolioko gertakariekin; udaberria amaitzerako, Hungariak sutan jarri zuen Europa, homosexualen

kontrako bere legearekin; eta uda azkenetan zela, tenperaturak jaisten hasi behar lukeenean, zer eta sumendiak eztanda La Palma uhartean. *Hotza* nabarmentzen du, ordea, Euskadi Irratiko kazetari eta nazioarteko gaietan aditu Juanjo San Migelek bere analisisan, hiru *gerra* lotuz: "Errusiaren eta Mendebaldearen arteko harremanek Sobiet Batasunaren amaiera ezkereratu zira zirudien gatazkaren antza hartu dute. Ukrainaren eta Errusiaren arteko mugaren bi aldeetara milaka soldadu bidali dituz-

te bi gobernuak. AEBek eta Europar Batasunak Ukrainari mehatxu egin eta inbasioa prest izatea leporatu diote Errusiari; Moskuk, aldiz, mehatxua beste aldetik datorrela dio, komunista izandako herrialdeak bereganatuz NATOk Errusiako mugetaraino eraman duelako armen mehatxua, eta orain ez duela inolaz ere onartuko Ukraina NATOra biltzea. Gerra Hotza ez da itzuliko, eta, seguruenera, alde guztiek armak ez erabiltzea erabakiko dute, baina, zalantzarik gabe, mundua eta nazioarteko harremanak berrantolatzea ezinbestekoa da, indarra eta eragin ahalmena asko sakabatu diren honetan, herrialde bakoitzak bere lekua eta dituen mugak ontzat emanda; gainera, Nazio Batuetan erabakiak hartzeko eran II. Mundu Gerraren amaierako sistemak irauten du oraindik".

"Gerra ekonomikoa" da San Migelen bigarren hizpidea: "Eragin ahalmenaren sakabanaketa horretan, batzuek galdu dutena beste batzuek irabazi dute. Europak, historian zehar, ekonomian eta, batez ere, harreman ekonomikoak arautzeko izan duen indarra nabarmen ahuldu da Txinaren mesedetan. Pekinek mundu osoan inbertsioak ugaritu ditu; batez ere, Zetaren Bide Berria deritzon proiektuaren bitartez. Baina Europarekiko lehia Afrikan irabazten ari da, beti Europaren eragin eremu izan diren lurretan.

IRAUNKORTASUNERAKO, BIZITZEKO ERA EZINBESTEAN ALDATU BEHAR DUGULA DIO JUANJO SAN MIGELEK

Mehatxuaz jabetuta, Europar Batasunak 300.000 milioiko inbertsioak agindu ditu; besteak beste, borroka honetan atzean ez gertzeko. Bruselak behin eta berriz dio bere inbertsioek, helburu ekonomikoaz gain, demokrazia zabaltzea dutela xede. Baina Afrikan diote gogait eginda daudela Europak jartzen dizkien baldintzez, Txinak garbiago jokatzen duela eta ez dela bere arazoetan sartzen. Europak, gerra ekonomikoaz gain, politikoa ere gal lezake Afrikan, afrikarrek Txinako eredu egoikiagoa dela pentsa lezaketelako, eta, hala balitz, ondorioak handiak lirateke, eta ez litzukete Afrikan soilik igarriko".

Kazetari arrasatearrak "irabazi beharreko gerra" izendatzen du hirugarrena: "Munduan zehar diren gerrak, lehiak eta gatazkak gaur egun gizakiok dugun arazo larriena ezkatzen ari dira. Glasgow hiriko batzarrean egiaztatu ahal izan dugu 2015ean Parisen sinatu eta hartutako konpromisoak ez garela betetzen ari. Eguratsa berotzen ari dela eta klima aldatzen, denborarik gabe geratzen ari garela eta uste baino lehenago berandu izan litekeela. Eta hemen ez da irabazlerik eta galtzailerik izango, guztiok goazelako hondamendirra. Klimaren gaineko batzarrean ohartu gara, bestalde, gobernuak ez direla ausartzen hartu beharreko erabakiak hartzera, jakin badakitelako gehiengoak, gutariko gehienok, ez dugula okerrago bizi nahi. Eta gerra honek ezinbesteko baldintza hori du: lehendabizi, aitortu eta onartzea egoera kezkatzeko modukoa dela; ondoren, bizitzeko era aldatu behar dugula erabakitzea; eta, azkenik, asmo eta konpromiso horiek betetzea. Bestela, jai dugu".

Urte berri on!

ILEA

♀ ♂

A ILE APAINDEGIA

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

f ilea peluqueria/ileapaindegia



Herritarrak kalean, Arrasaten.

Erabateko errekupeazioa, 2022ko helburu

Gorabeheratsua izan da 2021a ekonomikoki ere. Susperraldiaren urtea behar zuena aurreikuspenetatik behera gelditu da. Aldaera berrien hedapenak eta hornigaitateetan sortutako arazoek eragin itzela izan duten bilakaeran / **Miren Arregi**

Zoritzarreko urte gisa pasatu zen historiara 2020a. COVID-19aren krisiak gogor astindu zuen planeta osoa eta, oro har, atzeraldi ekonomikoa %3,3koa izan zen. Nazioarteko Diru Funtsaren kalkuluen arabera. Hondamendiaren ostean eta txertoaren ondotik, "susperraldiaren" urtea iritsi zen. Baina horrela behar zuena hasierako aurreikuspenetatik behera gelditu da. Horren arazoi nagusia da txertoa modu desorekatuan zabaltzen ari dela Europar Batasuneko herrialdeetan.

Espainiaren kasuan, %4,6ko hazkunde espero da, urte hasieran aurreikuspen zena baino %1,6 gutxiago. EAEko datuei erreparatuta, BPGk %3,9 egin du gora 2021eko hirugarren hiruhilekoan. Hala ere, ezingo du orekatu 2020an izandako galera,

-%9,9 izan baitzen. Gehikuntza handienak industria eta energia atalean gertatu dira, %5,5, eta merkataritza, ostalaritza eta garraioarenean, %6,1. Hala ere, bi atal hauek 2020an erorketak handiagoak izan ziren: -%6,8 industria eta energian eta -%18,5 merkataritza, ostalaritza eta garraioan.

KPIk aparteko azterketa mezezi du, urritik urritara %5 egin baitu gora. Subprime hipoteken krisiaren aurretiko datuarekin alderatuz gero, 2008ko urritik 2021ekora %18,97 egin dute gora prezioek. Hau da, joan den urtean soilik epe osoko igoeraren %26,36 gertatu zen.

Adituak baikorrak dira azpi-inflazioa, energiarena eta jakiena kenduz gero, %1,4koa izan baita, eta udaberria iristearekin batera energia-gaiena jaitsi egingo dela uste baitute.

Langabezia tasak

2021eko datuei erreparatuz gero, betiere, Eustaten arabera, langabezia behera egin du EAEko hiru lurraldeetan, 1,2 puntu hirugarren hiruhilekoan 2020ko epe bereko datuekin alderatuz gero. Langabezia %8,9koa da. 2019koa, 2020ko erreferentziarik ez erabiltzearen oso urte atipikoa izan baitzen, %9,3koa izan zen. Gipuzkoari dagokionez, %7 aurtengo hirugarren hiruhilekoan eta %7,1, berriz, 2019ko amaieran.

Kontratazioari dagokionez, azpimarratzekoa da kontratu mugabeak poliki-poliki baina etengabe ari direla goranzko joeran. 523.800 ziren 2019an, 534.400 2020an eta 541.100 2021eko irailean. Hala ere, aldikako kontratuarekin edo kontraturik gabe ari zirenak 239.300 ziren. Kontuan hartzeko datua.

RPS: 227/18



ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.
Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63



Okupatuaren kopuruak ere gora egin du eta 953.600 ziren aurten go apirilean, 2019ko amaierako 945.500en aldean.

Baina 2007koarekin alderatuz gero, dezente okerragoa da egoera, orduko langabezia tasa %3,1 baitzen.

Urte gorabeheratsua

2021a bi zatitan banatzen du Laboral Kutxako zuzendari Joseba Madariagak: "Lehen bi hiruilekoetan ekonomiaren dinamika intentsua izan zen eta hazkundera handia; hirugarrenetik aurrera etorri ziren arazoak –Asiako enpresen itxiera, garraioaren kostuak, shock energetikoa–, eta gelditu egin zuten hazkundera. Ondorioz, inflazioa igo da 2007ko finantza krisiaren aurretik ikusi ez dugun tasetara". Halere, badira desberdintasunak 2007ko krisiaren eta orain bizitzen ari garenaren artean. Ordukoa krisi endogenoa izan baitzen Madariagaren hitzetan, eta, ondorioz, errekupeazioa askoz ere motelagoa. COVID-19aren krisia, aldiz, exogenoa da eta loraldia azkarragoa izango da.

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Fakultateko dekanok Lander Belokik Europako 2021eko ekonomia olatuak hartzen diharduen surflari baten moduan irudikatzen du. Hala ere, ikusten ditu desberdintasunak 2008koarekin. 2008ko krisian ez bezala, Europar Batasunak ardura eta erantzukizun handiagoarekin jokatu du, gastu publiko plan berezia aktibatuz. Errekuperazio ekonomikoa, beraz, 2022rako eta 2023rako helburu bilakatu da.

Next Generation funtsak

Errekuperazio horretan zeresan handia izango dute Europar Batasunak osasun-krisiak eragin-

urteko errepeasioa, labur

Errekuperazioa

Susperraldiaren urtea izenez ezagutuko da, nahiz eta ez den esperotako zifretara iritsi. Besteak beste, New Generation EU funtsek lagunduta hasi da hori.

Txertoaren geopolitika

COVID-19aren aldaera berrien bilakaera eta horiei erantzuteko txertoek izango duten gaitasuna berebizikoak izango dira erabateko susperraldian.

Digitalizazioa

Ekonomiaren alorrean digitalizazioak hartu duen pisua nabarmen handitu da pandemia gertatu zenetik hona. Horrek eskaria asko handitu du, eta merkatuetan tentsioak sortu.

Klima larrialdia

Espero baino gutxiago izan badira ere, badirudi klimaren azken goi-bileran estatuak hasi direla egoeraren aurrean erantzuten. Joe Bidenekin AEBak Parisko Itunera batu dira; Txinak akordioko helburuetara iristeko neurriak hartzen hasiko dela iragarri du; eta Europak 2030erako sortzen dituen emisioen %55 gutxitzeko konpromisoa hartu du.



Automobilgintza da kaltetuena izan den sektoreetako bat.

dako krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko martxan dituen neurriak. Neurri multzo horrek, besteak beste, Next Generation EU izeneko errekupeaziorako aparteko neurriak biltzen ditu. "Oso neurri aproposa izan da eta eragin handia izan dezakete enpresen eta lurraldeen lehiakortasuna hobetzera bideratzen badira. Kudeaketan orain arte zalantzak gehiago dira argiak baino; hala ere, aukera izugarria ekarriko dute mugituko diren bolumenak kontuan hartuta", dio Belokik. Madariagaren ustez, laguntzak aukera paregabea dira ehun-enpresariala sortzeko, bereziki digitalizazioari eta ingurumen-iraunkortasunari dago-kionez.

Eskariak tentsioa eragin

2021eko ekonomia baldintzatu duen arrazoietako bat da, zalan-

tza barik, eskariaren hazkundera. "Pandemiak konfinatzera eraman gaitu, eraldaketa digitalean hainbat urtetako aurrerapausoa eman dugu, bat-batean. Ondorioz, digitalizazioarekin lotura daukaten produktu askoren eskaria –txipak,

URTE HASIERAN EKONOMIAREN DINAMIKA INTENTSOA IZAN DA; GERO ETORRI DIRA ARAZOAK

HORNIGAI-KATEETAN SORTUTAKO ARAZOEN ONDORIOZ, INDUSTRIA EKOIZPENA ASKO JAITSI DA

adibidez– asko handitu da, ekoiztu daitekeen baino maila altuagoan". Erdieroaleen ekoizpen gaitasuna handitzeko inbertsio handiak behar dira, eta, ondorioz, merkatuetan tentsioak sortu dira. Horrez gain, nazioartean merkantzien garraioan ere eragin bera izan dute; kontuan izan behar da itsasoz mugitzen dela nazioarteko merkantzien gehiengo handia. Hornigai-kateetan sortutako arazoek ondorioz, manufaktura-ko industriaren ekoizpena %12,8 eta %13,2 jaitsi da hirugarren hiruhilekoan. Arazoa larria izan bada ere, 2022an bere onera etorriko den aurreikuspenak daude.

Automozioa, kaltetua

Egoera honek bereziki eragin duen sektore bat da automobilgintzarena. Esportazioak oso urrun daude pandemia aurreko datuetatik, erdieroalezko memo-

ZORIONAK
eta urte berri on
2022

ibili
www.ibilimenoje.com
SINCE 1942

rien faltagatik. "Ekoizpenaren aldetik hainbat horniduraren gabezia egon denez, plantak itxi beharrean izan dira", dio Belokik. Horrekin batera, sektorean gertatuko diren beste aldaketa batzuek zalantza handia sortzen dute. "Auto elektrikoaren hedatzean eztabaida handia dago. Klima aldaketa gelditu ahal izateko trantsizio hori derrigorrezkoa da, baina, Europan automozioak duen garrantzia kontuan hartuta zentzuz eta erritmo egokian gertatu behar litzateke aldaketa".

Ekonomia eta klima

Urte bukaerak eman duen beste gertakari bat Glasgowko klimaren goi-bilera izan da. Bertan batu dira munduko agintariak, Parisko Akordioan jasotakoak egia bihurtzeko hartuko dituzten neurrien inguruan aritzeko. Arlo horretan etorriko den eraldaketak eragin zuzena izango du ekonomian, ekonomia eta klima banandu ezinezko bi eremu baitira. Klima larrialdia arazo globala da eta ekonomia, mundu mailakoa. Klima aldaketan eragin handienetakoa erregai fosi-



Elgeako parke eolikoa eta atzean Aizkorri-Aratz parke naturala.

len kontsumoak eta ekoizpen kateen deslokalizazioak dute. Hain justu ere, karbono neutraltasuna lortzeko helburu horretara bidean industria sektore askok bizi dute eraldaketa. Mehatxuak eta aukerak ekarriko dituen eraldaketa. Eta hori hazkunde eredu aldaketatik etorriko da, ekonomia linealitik zirkularrera igarotzean, besteak beste. "2020an, pandemia global baten erdian geundelarik, lurra birsortu dezakeen baino gehiago kontsumitu dugu. Pentsa zein

den egoera", dio Idoia Urainek, Mondragon Unibertsitateko ekonomia zirkularreko ikertzaileak. "Bai enpresak eta bai norbanakoak ere oso ohituta gaude produktuak botatzera, eta kontzientziatu behar dugu beste erabilera bat emateko".

2022rako aurreikuspenak

Egoera ezegonkor honen aurrean, eta datozen COVID-19aren aldaera desberdinekin, ez da erraza aurreikuspenak egitea. Hala ere, BBVA Reseach-ek %4,6ko hazkunde aurreikusten du 2021erako. Nafarroakoari dagokionez, aldiz, %4,8koa. 2022rako, berriz, %5,2koa eta %5,4koa, hurrenez hurren. Honekin guztiarekin, BBVAren azterketa taldeak ez ditu ez EAE ez Nafarroako Foru Erkidegoa sartzen krisi aurretiko jarduerara mailara iritsi daitezkeen komunitateen artean. BP-Gren errekupeazioan arriskurik handiena izango dira txertoa eta koronabirusaren aldaera berriak, Joseba Madariagaren esanetan. "Mugikortasunaren eta birusaren arteko erabateko haustura izango dira aktibitate ekonomikoarendako berme hobezina".

EKONOMIA EREDUA ALDATU EGIN BEHARKO DA KLIMA LARRIALDIARI AURRE EGITEKO

TXERTOAREN ETA ALDAERA BERRIEN ARABERAKO IZANGO DA BILAKAERA EKONOMIKOA

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Urte berri on!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



Malen Ruiz de Azua, maiatzaren 29an Silesian (Polonia) egin zuten selekzioen arteko Europako txapelketan. Zilarra lortu zuen arrasatearrak: 4,35.

Publiko faltan, kirola, pasiorik gabeko jokoa

lazko urtekarian nabarmentzekoa izan zen pandemia urtea izanda ere egon zela nabarmendu zen kirolaririk. Aurten, berriz, kirol jarduera profesionala itzuli egin da, baina kasu askotan publiko barik. Eta, ez da gauza bera / **Xabier Urzelai**

2020. urte beltzean egon zen distira egin zuen kirolaririk. Eneko Carrascal Realeko atleta eta saskibaloian jokatzera AEBetara joan den Irene Murua nabarmendu zituzten iazko urtekarian Adrian Beloki kirol aditu eskoriatzarrak eta Euskadi Irratiko esatari Maitane Urbietak. Etorri zen 2021a, egokitu behar izan zituzten egutegiak, atzeratu zituzten proba asko udazkenara, eta publikoari etxean geratzeko eskaera egin zieten torneotako antolatzaileek: Agorrosin, Reale Arena, Iturripe edota Buesako harmailak hutsik, hutsik Arrateko maldak Euskal Herriko Itzulian –mendatea itxi zuten–, liga txapelketak iguera eta jaietsiera gabe, positiboengatik etengabe bertan behera geratzen ziren jardunaldiak... Hala, egoera joan zen *normalizatzen*, poliki-poliki, urteko azken hilabetean

berriro ere okertu den arte. Hala, urte arraro honen gaineko errepasoa egiteko, GOIENAK zenbait bidelagun izan ditu, Aratz Losada kirol aditua, Jokin Etxeberria kazetaria eta azkeneko bi Behobia-Donostia lasterketetan gurean nabarmendu den Saioa Arkonada atleta.

Edozelan ere, kirolarien izenak nabarmentzen hasi aurretik, Aratz Losadak amateur mailako kirolean ikusi duenaz hausnartu du: "Herri mailakoan artean oso esanguratsua izan da bakarrik kirolak hartu duen indarra. Oñatin oso gauza kuriosoa gertatu da aurreko denboraldian: hainbat kirol taldek segurtasun neurri moduan ligetan parte ez hartzeko erabakia hartu zuten, futboleko, eskubaloian, saskibaloian... Hor, jendea zenbait hila-betez ohiko kirol jarduera gabe geratu zen, eta hasi ziren mendian korrika, eskalatzen, bizikletan ibiltzen... Eta ondoren, taldeko kirol jarduerak osterara ere baimendu dituztenean, batzuek horrela jarraitzeko erabakia hartu dute. Halako kirol jarduerak sekulako gorakada izan dute, eta taldean egiten diren jarduerak, beherakada".

Badira nabarmendu direnak

Kirol ohituretan aldaketak ekarri ditu pandemiak, eta, hala ere, egon dira egiten duten horretan inoiz baino hobeto ibili direnak ere. "Arrasateko atletak behin eta berriro nabarmenduko nituzke", dio Losadak. "Oñatitik inbidia sanoarekin jarraitzen ditut; ez dakit Arrasaten konturatzaren diren daukatenaekin, baina sekulakoa da. Atleta horiek agur esaten dutenean sumatuko dugu euren hutsunea". Hori esanda, jakinekoa da 2021 honetan nor nabarmendu den: Malen Ruiz



Realeko kapitain Oiarzabal, Kopako garaikurra jasotzeko uanean, taldekidez inguratuta, Sevillan. Realak 0-1 irabazi zion Athletic finalean.

de Azua. "Egia esan, aurten eman duen mailak harritu egin nau", dio Jokin Etxeberriak: "BAT utzi eta Valentziako taldera joan zen, eta horrekin batera lanean ere hasi zen... Uste nuen, akaso, Malenek beherakada izango zuela. Izan ere, lanean hasteak izaten du eragina, entrenatzeko denbora gutxiago izaten dute, baina kontrakoa egin du, indarberritu egin da eta 2021 izugarria egin du". Izan ere, pista estaliko Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabaztearekin batera -4,43 Zaragozan-, aire zabalean ere marka pertsonalak ondu zituen -4,47 Ibercacha Sarian, Zaragozan-, eta maiatzean jokatuako selezioen arteko Europako Txapelketan, Polonian, zilarrezko domina eskuratu zuen, Roberta Bruni faboritoaren atzetik.

Hala, Ruiz de Azua da gehien nabarmendu den atleta, baina

ezin aipatu gabe utzi marka pertsonaletik urrun ibili bada ere Maialen Axpek Espainiako aire zabaleko txapelketa irabazi zuela -4,37- eta Eneko Carrascalek egindako denboraldi ederrean Espainiako Txapelketa absolutuan zilarra irabazi zuela marka pertsonala eginda: 16,14.

Mendi lasterkariak

Pista gaineko atletismotik harago egon dira nabarmendu diren kirolari gehiago, noski. Eta, mendi lasterketetara salto egin da, Oihana Kortazar elgetarrak

BAILARAN, MALEN RUIZ DE AZUAREN ZILARREZKO DOMINA, EUROPAKOAN, MUGARRIA IZAN DA

erakutsi du soka luzea geratzen zaiola. 2021ean hainbat lasterketa irabazi ditu -Aneton errekor berria ezarri zuen (4.40.23), 1998tik Emma Rocak zeukana- baina garaipen nagusietako bat izan zen Jaenen jokatuako Espainiako Txapelketa -esprint estua irabazi zion Maite Maiorari-, eta uztailan Vall de Boïn (Lleida) egindako Munduko Txapelketan, kilometro bertikalean, zilarra eskuratu zuen. Gertuago, bailaran, hasiberri batek erakustaldia egin zuen Aloñako Igoeran. "Sekulakoa egin zuen Malen Osak. Gorbeia Suzien lasterketan izan nintzen ni ere, eta han eman zuen lehenengo ezustea", adierazi du Saioa Arkonadak. "Herriko lasterketan, baina, erakustaldia egin zuen. Aloñako Igoera irabazten duen lehenengo oñatiarra bilakatu da Malen, eta, gainera, sekulako denboratzarra

egin zuen. Hor erakutsi zuen nahi badu zer-nolako lasterkaria izatera irits daitekeen; hori bai, aurrera begira oraindik gaztea da eta etxeko lasterketek hori dute, nahi gabe zeure burua prestatu egiten duzula".

Indarrak batzen

Kirol indibiduala alde batera utzi eta klubetara salto eginda, nabarmentzekoa da UDAREN 75. urteurrena: "Ez da berehalakoan egiten den zenbatekoa; horrenbestez, zorionak aretxabaletarrei", dio Losadak. Eta Etxebe-

MALEN OSA PROTAGONISTA IZAN ZEN ALOÑAN; OIHANA KORTAZARREK SOKA LUZEA DU ORAINDIK

URTEKO ERREPASOA, LABUR

Ligak, baldintzatuta

Igoera eta jaitsiera gabeko ligak -Gipuzkoan- egin zituzten eta talde batzuek parte ez hartzea erabaki zuten. Euskal ligetan zigorrak egon ziren: Leintz Arizmendik 760 euro ordaindu behar izan zituen ez jokatzearren, eta maila galdu zuen.

Harmailak, hutsik


Kirol instalazioak publikora itxita egon ziren zenbait hilabetez. Hirugarren mailara igotzeko faserako sailkatzeko Lesakan jokatuako partidua erabakigarrian Beti Gaztek zaleak alde izan zituen harmailetan; UDA kanporatu egin zuten.

Oñatiko kasua, bitxia

Liga federatuetan Oñatiko saskibaloia, eskubaloia edota futbol taldeek ez jokatzera erabaki zuten. Kontrara, Debagoiengan egiten diren lasterketen artean Oñatikoak izan dira antolatzen bakarrak: Oñatiko duatloia eta Aloñako Igoera, esaterako.

Egoerak, txarrera


Bazirudien egoerak ez zuela txarrera egingo, baina San Silvestre probetako zenbait antolatzailek proba ez egitea erabaki dute.



rriak jarraitu du ibarreko klubaren artean egon den egitasmo bateratu baten gainean berbetan: "Badira urte batzuk emakumezkoen futbola sendotzeko zenbait klub batu eta Leintz Arizmendi sortu zutela. Proiektu horretara batzen azkena Aloña Mendi izanda, eta erakutsi du indarrak batzeak emaitza onak ematen dituela. Bada, Eskoriatza saskibaloiko elkartearen eta Ointxe!-ren artean aurten lortutako adostasuna ekarri nahi dut gogora. Eskoriatzan emakumezkoen senior mailako saskibaloiko taldea kolokan zegoen, eta lortu dugu taldeari eustea. Eta Ointxe!-k lortu du talde horrekin beheko kategoriatik talde nagusira zuten koska handia txikitzea. Ikusteko dago hitzarmen horrek etorkizunean ze bide egingo duen eta oñatiarrak eta bergararrak ere bailara mailako proiektu batera batu daitezkeen. Zergatik ez?".

Reala, Kopa txapeldun

Euskal Herri mailara salto egiteko proposamena eginda, Etxebarriak eta Losadak Realak Errege Kopa irabazi izana nabarmendu dute: "Hainbat belaraldi geunden hor, gurea barne, gizonzkoen Real titulu irabazten ikusi ez duguna. Emakumezkoek lortu zuten duela hiru urte, eta, moduagatik arraroa izan bazen ere -2020ko txapelketako finala zelako eta harmailak hutsik egon zirelako-, realzaleok sekulako poztasuna hartu genuen". Eta, lorpen horretan debagoiendar batek ekarpen propioa egin zuen, Andoni Gorosabelek partidua borobila jokatu zuen eta: lehenengo zatian arrasatearraren erdiraketek min egin zioten Athletic, eta Yuri Berchicheri eta Muniaini eusten asmatu egin zuen.



Simon Biles, Japoniar Olinpiar Jokoetan; finalean esku ez hartzea erabaki zuen.

Dena ez da, baina, futbola. Pilotan, garaikurrek baino gehiago, agurrek utzi dute arrastoa. "Aimar Olaizolaren erretiroa nabarmentzekoa da. Irujo-zalea izanda ere, ez daukat arazorik esateko seguruenik pilotari han-

diena izan denak esan duela agur", dio Etxebarriak: "Eta orain jakin dugu Bengoetxeak ere urtea hasiarekin batera utziko duela elite mailako pilota. Hutsune handia utziko dute, zalantza barik". Arkonadak, berriz, euskal selekzioan jarri du fokua, baina mendiko lasterketarako selekzioan, eta, hain zuzen, lasterkariak abenduan eman duten ultimatumean: "Harrituta hartu dugu selekzioa kideen erabakia. Federazioko zuzendaritzarekin ezadostasunak dituztela eta selekzioa elastikoa gehiago ez

janzteko erabakia hartu dute. Ez dakigu hor barruan zer gertatu den, haserreak handia izan behar du, baina selekzioaren etorkizunak arduratzen nau; berri txarra izan da, zalantza barik".

Biles, eta osasun mentala

Nazioartean, Olinpiar Jokoei pisu handia izan dute aukeraketa egiteko orduan. Baina oraingoan, atleten markak baino gehiago, pandemiak eragin duen guztiak sortu du zeresana. Saioa Arkonadak hartu du hitza: "Pentsa bost urtez Jokoei prestatzen egon eta azken egunotan positibo izateagatik kanpoan geratu diren kirolari horiek zelan geratu diren... Gehiago egin da berba halakoez, eta ez horrenbeste kirolariak lortu dutenaz. Harmailak hutsik egon ziren Olinpiar Jokoetan, eta seguru ikusleendako moduan kirolariendako ere oso arraroa izan zela dena". Losadarendako ere 2021a harmailak hutsik erakutsi dituen urtea izan da: "Eta Olinpiar Jokoei izan dira egoera hori nabarmen bistaratu dutenak. Garbi geratu da publiko gabeko kirol hitzorduak pasio eta sentimendu gabeko joko bilakatu direla. Kirol jarraitzaile amorratua naiz, eta konturatu naiz iazko denboraldian momentu askotan deskonektatu egin nuela, ez nituela hitzordu asko beste batzuetan moduan jarraitu".

Eta Olinpiar Jokoei berbetan hasita, kirolari batek, kasu ho-

netan gimnasta batek, bereganatu zituen izenburu nagusiak. "Simon Biles-i zor diogu elitako kirolariaren osasun mentalaren gaia mahai gainean jarri izana. Jokoetan normaltasunez jardun izan balu inoizko errekorrik ikusgarrienak ontzeko aukera izango zukeen, baina txapelketa hastarekin batera aitortu zuen psikologikoki ez zegoela ondo, ez zegoela lehiatzeko moduan", dio Losadak. Hor bistaratu zen ustez dena daukaten kirolari horiek ez direla makina hutsak, horiek ere presio izugarria kudeatu behar dutela, eta motiboa edozein dela ere txarto egoteko eskubidea daukatela. "Esango nuke Simon Bilesen egoeran pandemiak berak ere, beste kirolari askorengan izan duen moduan, eragin zuzena izan zuela. Uste duguna baino kalte handiagoak ekarri ditu COVID-19ak; jendea tristeago ibili da, orokorrean".

Agur entzutetsuak utzi ditu 2021ak, eta baita itzulera harri-garriak ere, Etxebarriak nabarmendu duenez: "Pau Gasolen agurra aipatzeko modukoa da, Estatuan inoiz egon den saskibaloiko jokalaria onenaren agurra izan da, eta deigarria izan da, baita ere, haren anaia Marc Gasolek egin duena. NBA bi eraztun irabazi dituen jokalaria etxera itzultzea erabaki du, baina ACB mailan jokatu beharrean Urrezko LEB ligan jokatzeko erabaki du, presidente kargua ere baduen Gironako taldean. Eta erretiratuta egonda ere ostera ere itzuli diren artean Fernando Alonso nabarmenduko nuke. Itzuli, eta Alpine taldearekin podiumera igotzeko kapaz izan da pilotu asturiarra, zer eta 1 Formula moduko txapelketa lehiakorrean".

2021AK PUBLIKO GABEKO HARMAILAN IRUDIA UTZI DU: "PASIORIK GABEKO JOKOA IZAN DA"

SIMON BILES-EN OLINPIAR JOKOETAN MAHAI GAINEAN JARRI ZUEN OSASUN MENTALAREN GAIA

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte 1

Tel.: 943 77 13 79

ARETXABALETA

Eskerrik asko urte guzti hauetan gure ondoan izateagatik!

Zorionak eta urte berri on!



Durangoko Azoka bi formatutan egin dute aurten: modu presentzalean eta online.

Kultura-gurpila abian, baina abiada motelean

Edukiera mugak kenduta, arnasa hartu dute kultura eragileek eta zaleek, nahiz eta behar duten erritmoa ezin berreskuratu ari diren, eta askotariko diziplinetako sortzaileek emari aberatsa dutela erakutsi dute / **Aitziber Aranburuzabala Juldain**

Kultura arloan pozik hartu zen urrian segurtasun-neurriak bertan behera uztea. "Nabarmentzekoa da edukiera osoa berreskuratu izana. Industriak oreka berreskuratzeko zantzuak eman ditu neurri horri esker; zinemaldi fisikoen itzulera gauzatu da, esaterako", dio Kimuak egitas-moko zuzendari Esther Cabero aretxabaletarrak.

Nabarmentzeko film asko

Euskal filmen ekoizpena oparoa izan dela diote, hurrenez hurren, Aitor Abaroa zinema adituak eta Esther Caberok: "Ez dugu, aurreko urteetan moduan, fikziozko euskarazko film izarririk izan, baina urte eskasa izan da? Bada, balio dezala konturatzeko euskal zinemagintza oso anitza eta aberatsa dela". "Zailtasunekin ere, urte oparoa izan da, eta, Aitorrek dioen moduan, fokua deszenta-

lizatuago egoteak ikusleak beste genero eta formatu batzuetara hurbiltzea ahalbidetu du. Eta euskara bestelako formatu batzuetara ere ireki da; *Hondar ahoak* telesailak zeresana eman du. *Artxiplagoa* podcast-a ere fenomeno bat izan da; entzun ez dutenei, hortxe, bada, gomendioa".

Manu Gomez zinemagile arrasatearraren *Érase una vez en Euskadi* eta Asier Altuna *Kixi* bergararraren *Hondalea* dokumentala izan dira, beste hainbaten artean, aurten nobedade. Dokumentalen alde egin du Abaroak. "Jendea *Maixabel* edo *Érase una vez en Euskadi* bezalako fikzioei begira egon den bitartean, aurten dokumentalek jarri digute errelato eta interpretazioak albo batera utzi eta egia gordina begi aurrean: *Paperezko hegoak* eta *Non dago Mikel?* azpimarratuko nituzke. Maru Soloresen *Azarnak* ere aipatuko nuke".

Ekoi independenteen "arris-kuak" goraiatu ditu, berriz, Caberok. "Zinemagile gazteen alde egin dute askok; izan ere, batzuk konturatu dira, egoera honetan ere, zein beharrezkoa den etorkizuneko talentuen alde egitea. Sumendi, Maluta, Apellaniz & de Sosa, Txintxua Films edo Hiruki moduko ekoizpen etxeek bidean dituzte film batzuk. Plataforma digitalei dagokienez, euskal zinemarentzako beharrezko lehiak direla uste dut, aliatu gisa eduki behar ditugu. Eduki-erako sarbidea errazteaz gain, ekoizleentzako diru-sarrera iturrria ere badira. Ikus-entzunezko legean adostu diren hizkuntza gutxituen kuotekin zer gertatuko den ikusi behar orain".

Kimuak-i saria Zinemaldian

Euskal film laburretan dagoen eskaintza zabala nabarmendu du



Aurten ere, atxabaltarrok ez dou amore emungo



URTEKO ERREPASOA, LABUR

'Fadoak entzuten zituen gizona'

Kepa Errastik idatzitako eta antzeztutako lanak Donostia Antzerki saria jaso zuen martxoan.

Juan Carlos Irizar

Apirilaren 22an hil zen eskarmentu handiko Oñatiko musikaria.

Jesus Mari Lazkano

Bergarako margolariak *Lazkano. Bitakora koaderno* bilduma izan zuen jaioterriko Aroztegi aretoan ikusgai.

Donostia Zinemaldian

Manu Gomezen *Érase una vez en Euskadi* eta Asier Altunaren *Hondalea* aurkeztu zituzten.

Kimuak egitasmoa

Euskal film laburrak babesten dituen egitasmoak Zinemira saria jaso zuen.

Durangoko Azoka

Debagoieneko askotariko sortzaileen ekoizpenak izan ziren eskuragarri.

Ez Donk Amaitu

Herri-ekimenak 80ko hamarkadako Arrasateren kontakizuna egin zuen azaroan: erakusketak, hitzaldiak, kontzertuak... izan ziren.

Abaroak: "Kimuak egitasmoak aukeratzen duen lagina da erakusle, denetatik eta ona. Eskualdera etorrita, Iban Del Campo arrasatearraren *Serendipia* azpimarratuko dut, Lekeitioko Zine Bileran Urrezko Antzarraren irabazlea. Zinematografikoki gozamen hutsa da; film laburra, pantaila handian gozatzekoa".

Kimuakek babestutako film asko saritu izan dituzte 23 urteko ibilbidean, eta aurten, egitasmoa saritu dute; Zinemira saria jaso zuen Donostia Zinemaldian. "Urte oso bizia izan da. Euskal industriaren eskutik jasotako sariak eta babesak orain arteko lana kontsolidatu egin dela erakusten du. Hurrengo etapan zer premia bete eta zer arlo suspertu behar ditugun hausnartzeko aldi bat irekiko dugu orain. Berriki Zineuskadin integratu izanak film laburra beste luzera batzuk dituztenekin parekatzen du, eta talentu berrietan jartzen du arreta. Ilusio handia egiten dit proiektuaren ziklo berri honen buru izateak", dio Caberok.

Euskal Herriatik harago

Atzerrira begiratuta, banatzaileak estreinaldiak etengabe atzeratzen ibili direla dio Abaroak: "2021eko saridun gehienak gurean oraindik estreinatu gabe daude, eta guztiek dute ezaugarri bat komunean: zuzendari laudatu eta ezagunak; besteak beste, *Licorice Pizza* (Paul Thomas Anderson), *The Power of the Dog* (Jane Campion), *Belfast* (Kenneth Branagh)...

"Espiritu sagrado (Chema Garcia) filmak burua leherrarazi dit", dio Caberok, eta honela jarraitu du: "Aurtengo film onenetakoa dela esatera ausartzen naiz; ekoizle nagusiak Leire Apellaniz eta Ion de Sosa donostiarrak dira. Nazioarteko izenburuen



Fadoak entzuten zituen gizona lanak Donostia Antzerki saria jaso zuen martxoan.

arteak, *Petite Maman* (Celine Sciammar) nabarmenduko nuke, eta *Summer of soul* (Ahmir Questlove Thompson) dokumentala ere zirraraz gogoratzen dut".

Antzerkia: ikusgai eta ikasgai

Kepa Errasti Aretxabaletako aktoreak idatzitako eta antzeztutako *Fadoak entzuten zituen gizona* antzeztanak 21. Donostia Antzerki Saria jaso zuen martxoan. "Kepa Errastiren lanarekin ezin naiz objektibo izan, baina agerikoa da nolako bila-

kaera izan duen. Aurten ere gelditu barik ibili da; bigarren Donostia Antzerki Saria du dagoeneko, eta *Sisiforen paperak* eta beste obra batzuekin taula gainetik jaitsi barik ibili da. 2022an, esparru batzuetatik falta zitzaion errekonozimendua iritsiko zaiola uste dut; besteak beste, Paul Urjiko Alijoren *Irati* film luzean ikusiko dugu. Talentu handia dauka eta profesionalki loratze unean dago", dio haren lagun eta antzerkizale Esther Caberok.

KIMUAK-ENTZAKO "URTE BIZIA" ETA "EMANKORRA" IZAN DA; ZINEMIRA SARIA JASO DU AURTEN

'MAITASUNAREN ITXIERA' ETA 'ALTSASU' LANAK, ANTZOKIETAN TXALOTUEN ARTEAN

Aurten estreinatutako antzeztan asko izan dira Debagoieneko aretoetan. Aitor Borobia Bergarako aktoreak parte hartzen duen *Altsasu*, horien artean. "Ikargarria da aktoreen lana", dio Caberok, oraindik eskualdean izan ez den *Maitasunaren itxiera* lana ere goraiatuta. DAPEko (Debagoieneko Antzerki Plataforma) kide Amaia Castañedak ere Eneko Sagardoiren eta Miren Gaztañagaren azken lan hori goraiatu du: "Obra gordina eta, aldi berean, ikusgarria eta oso gomendagarria da. Madrilen ikusi nuen Juan Diego Bottoren *Una noche sin luna* ere azpimarratuko nuke, Antzerkiko Sari Nazionala irabazi duena aurten".

Antzokietatik harago, "antzerkia aisialdirako tresna baino gehiago dela" sinisten duen DAP aipatzekoa da. Debagoieneko herri askotan antzerki formatuak abiatu ditu urrian, eta ikerketak eta bestelako ekimenak bultzatu ere bai; horien artean, EHAZErekin (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte) elkarlanean abiatutako Ikusle Kluba. "Aurten ikasitakoa eta egindako lana izugarria izan da, pauso ugari eman ditugu, eta, beste asko falta diren arren, taldea gogotsu dago. Egindako lana ezinezkoa litzateke aurretik Debagoieneko hainbat herritan antzerkiaren bueltan egindako ekimen horiek barik", dio Amaia Castañedak.

Bertsolari gazteak, "indartsu"

"Taz galdutako plazak berreskuratzen hasteko urtea izan da", dio Arrasateko Ane Zuzubiskar bertsolariak. "Libreko saio batzuk egin dira, baina ez da lortu pandemia aurreko erritmora iristea. Uste dut 2022ko erronka izan behar dela

IOSU
harategia • taberna



Gabon zoriotsuak guztioi!



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

libreko saioak berreskuratzea, asko direlako plaza gutxiago dituzten bertsolariak. Saio falta iraultzeko ekimenak sortu dira, tartean, Señora Sariketa, eta jarraipena izango du. Txapelketei dagokienez, iaz egin ezin izan zirenak aurten egin dira: Bizkaikoa, Nafarroakoa eta Iparraldeko Xilaba. Niretzat, behintzat, poz handia izan da nire adin bueltako bertsolariak oso fin aritu direla ikustea. Izen batzuk aipatzearren, Sarai Robles, Gorka Pagonabarraga, Saioa Alkaiza, Aitor Bizkarra eta Aitor Etxebarriazarraga".

Kontzertuak "berrasmatzen"

Kontzertuen antolatzaileak "halabarrez une oro zuzenekoak berrasmatzen" ibili direla dio Iker Barandiaran musika adituak. "Hala ere, asko antolatu izan dira. Azken urteotan ikusi dugu rap, trap eta antzeko tendentziak gure artean indarra hartzen dabiltzala eta badagoela halako eszena aberats bat –eskualdean egin diren rap jaialdiak horren adibide–, nahiz eta gurean, beste ia inon ez moduan, oraindik ere rock, punk eta oi!-ak badaukan bere lekua.

Ezin aipatu gabe utzi gurean ere indartsu dagoen bakarlari harrobia, herri guztietan daude musikari berri asko, eta horien artean emakume ugari. Musika baino eremu zabalagoa hartzen duen Ez Donk Amaitu ekimena ere nabarmendu nahiko nuke, zenbait belaunaldik mirespenez edo asperduraz –bakoitzaren arabera– jarraitutako musika talde askoren testuingurua eta jatorria kokatzen eta ulertzen lagundu duelako".

Barandiaranek txalotu egin ditu musika talde zein sektoreko bestelako eragileak, aurrera egiteko ahaleginean jarraitzen dutelako. "Testuinguru horretan, gogora ekarriko nituzke Liher talde ekimentsua, Bananas talde gaztea eta Dupla, belaunaldi berriak harrapatzeaz gain, taldekideek duten jarreragatik, zaharragoak ere liluratzen gaituena. Aipatzekoa da, era berean, aspaldian gertatzen dabilen talde beteranoen itzulera: baliabide eta asmo handiekin batzuetan, esaterako, La Pollaren eta Delirium Tremensen kasuan. Eta dibertimendu hutseko ariketa gisa beste musika talde batzuetan: Ama Say, kasu".



Apirilean hil zen Irizar piano-jolea, konpositorea eta abesbatzen zuzendaria.

**BERTSO SAIOEN FALTA
IRAULTZEKO, SEÑORA
SARIKETA DA AURTEN
ABIATUTAKO
EKIMENETAKO BAT**

**POESIA LIBURU UGARI
IZAN DIRA AURTEN;
LITERATURA-ZALEEK
BEREZIKI GORAIPATU
DUTEN GENEROA DA**

Poesia liburuak, izarrak aurten
Debagoieneko idazleen eleberriak, saiakerak, komiki liburuak eta poesia liburuak izan dira aurten Durangoko Azokako nobedadeen artean; poesia lanak nabarmendu dira aurten, eta horien artean daude Eskoriatzako Oihana Aranaren *Lazunak Azazkaletan* eta Itziar Ugarte oñatiarraren *Gu gabe ere*; Susa argitaletxearen babesak izan dute biek. "Gure eskualdetik kanpo, Miren Agur Meaberen *Nola gorde errautsa kolkoan* poema liburua goraipatzekoa da, nire ustez; Espainiako Sari Nazionala jaso izana oso azpimarragarria iruditzen zait eta toki guztietan agertu beharko litzatekeela uste dut", dio Oihana Aranek.

Ezohikoa izan den arren –bi formatutan egin delako aurten, online eta modu presentzialean–, Durangoko Azoka eta arloko beste azoka batzuk egin izana txalotu du Aranek. "Pandemiagatik dena nahiko iluna izan arren, poztekoa da hainbat literatura azokak aurrera egin dutela; Durangokoaz gain, Iruñekoa, Zarauzkoa, Ziburukoa eta Sarakoa, besteak beste".



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibargarai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Ongi etorri 2022

Leizeaga 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84



JASONE GIRALDO
EKIN EMAKUMEAK-EKO KIDEA ARRASATE



Herrigintzak bizirik dirau. Urtean zehar, herritarrok eta herriko eragileok, elkarlanean, herriak behar zuen hauspoa izan gara.



Krisialdi honetan, herriaren lehenetsunak berregokitzea ez da lehenetsun bilakatu batzuentzat. Herritarra ez da lehenetsun izan.



SERGIO SERRANO
HERRITARRA ARRASATE



Internetek informazio-iturriak ugaritu ditu. Patineteak, bidegorriak, garraio publikoa eta igogailuak mugikortasun ereduaren iraultza izango dira.



Pandemiaz baliatuz, segurtasunaren eta osasunaren aitzakian, gobernu teknokratiko baterantz goaz. Giza baliorik gabeko gizartea.



MAIDER ALCELAY
IPIUIN KONTALARIA ARRASATE



Arrasaten Antzerki Eskola martxan eta antzerkigintza saretzen bailaran. Indartsu dago kulturagintza, jende askok jarraitzen baitu gogoz lanean.



Kultura eskaintzak antolatzeke oztupoak ikusten dira, maiz, pandemian. Horrek eskaintza murriztu du eta saio asko bertan behera utzi ditu.



BEÑAT ARIZABALETA
ARTISTA ARETXABALETA



Bizi izandako egoeraren ondorioz ohiko gauza txikien berezitasuna identifikatzen ikasi dut. Arruntetik zerbait berezia sortzen!



Ezegonkortasun emozionala, sasoi honetan asko eta asko dabilzana bizitzen, eta, une batzuetan, horri aurre egiteko indarririk eza.



URRI URIZAR
MUNDUKIDEKO KIDEA ARETXABALETA



Kooperatiba, GGKE eta partikularrei esker, pertsona gehiagorengana iritsi izana Mundukideren lankidetzeta, Etiopia eta Mozambikera.



Planetako pribilegiatuenetakoak izan arren, norbere zilborrari begira eta kezaka bizi izatea oraindik.



JOSE MARI KORTAZAR
ERRETIRATUA ESKORITZA



COVID-19 gaitzetik babesteko txertoak bizkor izan genituen eskuragarri eta horrek lasaitasuna eragin zuen gizartean.



Errefuxiatuen krisiarekin jarraitzen dugu. Giza tragedia honen aurrean, elkartzasuna adierazteaz gain, gehiago egin beharko genuke.



OIHANA ARANA
BERTSOLARIA ESKORITZA



Saioa Alkazarren eta Nerea Ibarzabalen txapelak; Nafarroako eta Bizkaiko bertsolari txapelketetakoak, hurrenez hurren.



Azkenaldian, LGTB+ kolektiboko pertsonen aurkako erasoaren gorakada adierazgarria dela esango nuke.



JUAN LUIS ZABALA
ARGAZKILARIA LEINTZ GATZAGA



Astronomia-zalea naizen aldetik, ezin dut itxaron James Weeb teleskopio berriak zer unibertso eskaintzen digun ikusteko.



Medioen erabateko inplikazioa COVID-19arekin. Bigarren iritziak emateko aukera gabe, ukatzaileei ideiak emateko eskubidea ukatuz...



MIGEL LOITI
ERRETIRATUA ARAMAIO



Gizarteak izan duen gaitasuna egungo egoerara egokitzeko. Mundua zurrumbilo batean sartuta dagoen arren, gizarteak aurrera egiten jakin du.



Bizi dugun zurrumbiloan, politikariek erakusten duten ezin ulertua, hori da okerreana. Gizartea talkara eroan nahi dute. Maila baxua dute.



IRATI MUJIKA
HERRITARRA ARAMAIO



Egoera latzenetan ere, bizitzak aurrera segitzen du, alternatibak sortuz, komunitatea indartuz eta garrantzitsuen denari balioa emanda.



COVID pasaportearen ondorioz herritarrak diskriminatzen dituzten agintariek apartheid gogorra ezarri digute urtea amaitzeko.





JONE ALBENIZ
THE BADASS PROJECT-EKO KIDEA **BERGARA**



Sormena landu dugu, alternatibak topatu ditugu eta kulturak ongizatean duen garrantzia agerian geratu da azken urte honetan.



Jendeak behar izan duen poztasun txispa hori kulturak eskaini duen arren, neurri gogorrenak hemen sufritu ditugu.



ION BEISTEGI
SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTEA **BERGARA**



Kiroldegian neska-mutikoen harremanak berreskuratzea, entrenamendu eta txapelketan euren irribarreak ikustea oso pozgarria izan da.



Krisiak gazteengan dituen ondorioak; gero eta prestatuago daude, baina gero eta zailagoa da euren arloko enplegua aurkitzea.



XABIER BERASATEGI
ENPRESARIA **BERGARA**



Europar Batasunak *Next Generation* laguntzak martxan jarri ditu. Pandemia ostean erantzun egokia da erronkei aurre egiteko hainbat arlotan.



Pandemiak erantzun globalak behar ditu, eta txertoaren patentea ez da askatu, hainbat lurraldetako herritar asko txertatu gabe lagata.



UXUE IPARRAGIRRE
EIBARKO FUTBOL JOKALARIA **ANTZUOLA**



Emakumezkoen Urrezko Baloia lehenengoz jokalaria katalandar batek jaso du. Erreferenteak sorraraziko ditu; baita Antzuolan ere.



Urratsak egin diren arren, emakumezko futbolari profesionala ezin da futbolekit bizi. Sinatutako hitzarmena sinbolikoa da; ez da gauzatu.



EKAIN LARREA
ATLETA **ANTZUOLA**



Berriro ere lasterketak hasi direla, eta, azken urte eta erdi honetan geldituta egon diren arren, normaltasunez berriz lehiatzen dihardugula.



Thailandiarako munduko txapelketako txartela lortu arren, ezingo naiz joan: atzeratu egin dute, eta mailaz aldatuta egongo naiz.



MALEN OSA
KIROLARIA **ONATI**



Orokorrean, jendeargan gauza ximpleek ilusio gehiago pizten dutela ikustea, eta gizakiok daukagun hori gehiago baloratzen ikustea.



Badira gure bizi-kalitatea pandemiak beste hondatzen duten egoerak eta soluzioa urrunago dutenak: kutsadura, pobrezia, errefuxiatuak...



HORAZIO ARGARATE
PARROKOA **ONATI**



COVID-19aren bueltan igaro den urte honetan, txalotzekoa da osasun langileek erakutsi, egin eta izan duten ahalegina eta konpromisoa.



Bizitza publikoan maskara jantzi beharra: itomen sentazioa, betaurrekoak lurrunduta, ezin ondo ikusi... Beharrezkoa, baina astuna.



MIREN URKIOLA
KAZETARIA **ONATI**



Hurbilekoekin elkartzen garen une oro. Osasun egoerak bakartzera eramane gintuen eta elkartzeko dugu une bakoitza bereziagoa da orain niretzat.



Jasotako dezepzioak: denon hoberena ateratzeko aukera zela, txertaketak "lasaitu" egingo gintuela, lehen mailako osasun sistema genuela...



CARLOTA ALFARO ORTEGA
IDAZLEA **ELGETA**



Egoerak lagunduta aspalditik aparkatuta nuen proiektu bat aurrera eramatea lortu dut. Oso bestelakoa izan da normalean egin dudana.



Beldurrean bizi gara. Uste nuen gaintutako genuela, baina ez da horrela izan. Urte inoiz baino zatituago eta ikaratuago amaitu dugu.



JOSE RAMON SARASUA
ERRETIRATUA **ELGETA**



La Palmako Cumbre Vieja sumendiaren erupzio bolkanikoa behingoz gelditu izana nabarmenduko nuke pozen artean.



Pandemiak eragindakoak eta lan-istripuak nabarmenduko nituzke txarrenen artean. Athleticek bi finalak galdu izana ere gogorra izan zen!



GIZARTEA 2022

Berdea izango ote da 2022ko modako kolorea?



ELENA LAKA / ABOKATUA

Hasiko dugun urtea ez da, orain artekoen legez, idazteko dagoen orri zuri bat izango. Urtea bideo labur bat izango da, Tiktok-en sareratuko duguna. Ume txertatuek dantza bitartez erakutsiko dute zientzia sorginkeriari gailendu zaiola. Mutazio berriei aurre egiteko formula bakarra dagoela ikusiko dugu: politika, gehi datu zientifikoak, bider baliabideak.

Jaurlaritzak eta EH Bilduk, geometria aldakorra, badakizue, aurrekontuan osasungintzari erantsitako 30 milioiak dastatuko ote ditugun, lehen mailako arreta berreskuratuko ote dugun, osasungintzak osatu oteko gaituen. Eta zahar etxeetako zaintza duintzen den. Hor aurtengo dantza.

Hezkuntza itun berria

COVID pasea hortzetan ibili beharko dugun urtean, eliztarrek artzain berria estreinatuko dute. Orihuela, beste behin, deserri euskal herritar batentzat: hogeita sei urte beteko dira aurtengo gatzainaren lanleku berrian Jon Manteca *Herrena* debagoien-darra hil zela. Imanol *Faki-*

rra-rentzat ere deserri, heriotza topatu zuen bertan, hamazortzi urte etorriko dira. Ostera, 28 urte aurtun 2022a Vatikanotik ikusiko duen Celaaren eskutik etorritako hezkuntza legea onartu zela. Urte berriak hezkuntza itun berria oparituko digu, hurrengo urteko lege berriaren atalasekoa. Itun berrian, adostasuna izango ote dugu euskara hezkuntzaren ardatz izatearekin, segregazioaren finitzearekin, eta publiko-pribatu kontzeptuaren aldatzearekin.

Hauteskundeak Iparraldean

Urtea bideo laburra izango den honetan, Euskal Herriko hegoaldean ez dugu hauteskunderik izango, bake santua. Iparraldean, aldiz, bai, errepublikako presidente berria aukeratuko dute eta; ultraeskuinaren birkonkista ekarriko ote du? Ez da Internet bidezko gezur bako kanpaina izango, iragartzen dut, *fake* albisteak kafea bezain eguneroko bilakatu baitira 2022. urtean—Goiena bidez informatzen ez bazara, noski—.

Sarera egokitzeko, EAJk ere aplikazio berria aterako omen

du udaberrian, militantziaren krisiaren aurrean, bidelagunak alderdiarekin harremanetan jar daitezten. Begiak zabalik—eta krispetak altzoan— ikusiko dugu nola herri honetako bi alderdi nagusiak lehian ibiliko diren Espainian eta European nork gehiago eragin. Sanchezek ni maite nau, Sholzek *nir-nir* egingen dit.


Spoiler-a: aurtun ere ez dugu jopu gaituen konstituzioa aldatzen ikusiko.

Bonus track-a: bourbon zahararen izena kondena-epai batean ikusiko dugu. Poz txikerrak.

Gizarte moduan ahalduntzea

Hala ere, bizitza erreala jarraitu egingo du 2022an; tartean, indarkeria matxistak baita ere. Saiatuko gara gazteak hezten, feminismoa zabaltzen, baliabideak jartzen berdintasunerako. Denak gutxiegi. Errealitate gehiago, inporta zaigun horietakoa migrazioaren drama, odoluste bat izan behar ez duen pertsonen leku aldatzeak.

Gizartearen kontzientzia hartzea: eskubide berberak pertsona guztientzat, enplegu eta



ESKUBIDE BERBERAK
GUZTIENTZAT,
ENPLEGU ETA PENTSI
DUINAK, ETXEBIZITZA
ESKUBIDEA...

pentsio duinak, etxebizitza eskubidea, klima aldaketari aurre egiteko jarrerak: erantzukizun pertsonala, erantzukizun kolektiboa. Hobetzeko eta garatzeko geratuko zaizkigun ikasgaiak aurtun ere.

Gizarte moduan ahaldunduta eta parte hartzaile nahi gaituzte. Badakugu oraindik tartea. Tiktoken dantza egiteaz aparte, agenda, ehuntze, prozesu eta laborategi berri guztiek lagunduta bakoitzak ere pauso bat eman beharko du. Eta ez bakarrik 2022an oraindik bide gorri izaten jarraituko duen AHTko bidean. Ahaldundu Debagoiena

tren-lotura huts bat izan ez dadin Europako mapan.

Korrika eta Euskaraldia

Itxaropenik badugu: aurtengo urtea euskararena eta jendearena izango da, Korrika egingo dugu martxoan, Euskaraldia azaroan. Herrietako jaiak bueltatuko dira udaberrian. Euskaraz bizi izaten diharduen jendetza iragartzen dut gure herrietako kaleetan.

Dantza egin ahal izango dugu, eta ez bakarrik sarean. Izan ere, *influentzer*-ek diotenez, berdea izango da 2022rako modako kolorea.

Elena Elkorok 2022. urterako hoberena opa dizue elgetar guztioi!

Urte berri on!

EKONOMIA 2022

Finantza-burbuila, lehertzeko zorian



ADRIAN ZELAIA / EKAI GROUP-EKO ZUZENDARIA

Ekonomiaren etorkizuna aurreikustea beti da zaila, eta are konplikatuagoa bizi ditugun aldaketa bizkorren garaian. Ekonomiaz kanpoko faktoreek eragin berezia izango dute 2022an, bai osasun-politikatetik eratorritako murrizketen ikuspegitik, bai testuinguru geopolitikotik –gero eta tentsio handiagoa baitaude AEBen, Errusiaren eta Txinaren artean–, eta horrek desegonkortze politikoko prozesu larriak ekar ditzake, ondorio larriak izango lituzketenak. Batez ere, produktuen, zerbitzuen eta kapitalen nazioarteko merkataritzan.

Aurreikuspen negatiboak

2022rako planteatzen den lehen zalantza da zein neurritan izango den gai gure ekonomia 2020ko atzerakada berreskuratzeko (-%6,4 EBN eta -%9,5 EAEn), aurreikuspenak ez diren positiboak. Galdutakoaren berreskurapen hori 2022ko amaierara arte ez omen dugu lortuko. Horrek esan nahiko luke 2019aren amaieran zegoen maila berean egongo dela biz-

tanleko gure barne produktu gordina 2022aren amaieran. Gure garapen ekonomikoarentzat hiru urte galdutzat hartzea adieraziko luke horrek.

Bestalde, 2022an, galdutako ekoizpen-ahalmena berreskuratu ondoren, zein neurritan izango gara gai hazkunde-bide berri bati ekiten hasteko?

Bateria guztiak abian jarrita

Finantza-testuinguruan, behintzat, ez dugu batere baikorrak izateko oinarririk. Badirudi Mendebaldean hamarkadetan zehar metatu dugun finantza-burbuila lehertzen hasi dela. Litekeena da 2022an banku zentralak diru-eskaintza beste behin hedatzeko estrategiarekin jarraitzea, baina inflazioaren eztabaida ez dirudi horretarako aukera handirik uzten ari denik.

Diru-, banku-, zerga- eta aurrekontu-tresnen bateria guztiak abian jartzen ari direla dirudi, diru-leherketa horri aurre egiteko.

Zergak igo, gastuak murriztu

Finantza-burbuilaren eztabaidaren kostua agerikoa den he-

nean, kostu hori nork eta nola hartzen duen bere gain eztabaidatzen hasiko gara. Beste behin ere, finantza-sektorea itxuraz salbatu beharrak ekarriko du burbuilaren kostua gobernuengan eta herritarrengan uztea. Horretarako bitartekoak mahai gainean daude jada prest.

Ziur asko, gure herrialdeen zor publikoak gainezka egitearen inguruko kontzientziario orokorrarekin hasiko da prozesua, bai eta zor publikoari hainbat bidetatik aurre egiteko itxurazko beharraz ere: zergak igoz, gastuak eta prestazioak murriztuz. Gertatutakoa COVID krisiari leporatzen ahaleginduko dira gobernuak eta hedabideak, nahiz eta pandemiaren eragina finantza-burbuilaren arazoaren zati txiki bat baizik ez izan.

Banku-gordailuak erabili?

Azkenik, gobernuak oraingoan egoera kritikoa dauden bankuak erreskatatzea ezinezkoa denez, finantza-erantzule bideratzeko asmoz banku-gordailuak erabiltzeko tentazioa da, ziur asko, Europako herritarrok dugun arriskurik handiena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren ikuspuntutik, finantza-sektore funtsean osasuntsua

eta zorraren maila moderatua ditugu, eta 2022rako funtsezko gakoak da gure industria zenbateraino izango den gai bere lehiakortasun-esparrua defendatzeko. Industria indartsua dugu, baina maila teknologiko baxukoa, eta, beraz, gaur egungo egoera kritikoa gorabehera larriak jasateko arrisku handiarekin.

Azken urteotan, inbertsio produktiboa eta I+Dko ahalegina ahuldu egin ditugu, eta horrek esan nahi du gure posizio erlatiboak okerrerrako bidea hartu duela.

Arrisku hori zein neurritan gauzatzen den egiaztatuko dugu 2022an. Industriaren portaeraren arabera izango da, azken batean, aurrekontu publikoak eta gastu sozialari eusteko epe ertainera dugun gaitasuna.

Beraz, ezinbestean, arreta berezia jarri beharko zaio industria-produkzioaren zifren bilakaerari.



GERTATUTAKO COVID KRISIARI LEPORATZEN AHALEGINDUKO DIRA GOBERNUAK ETA HEDABIDEAK



ekidegroup
pertsonek ardatz

zorionak eta urte berri on!

Ekide S.L. · Telleria Kalea 2, Arrasate · www.ekide.es · 943712543

KIROLA 2022

Partidako azken sakean, etorkizunari begira



IBAN PEREZ HERNANDEZ / EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Kaixo, irakurle. Goienak eskatu dit kirol aspektuari dagokionez 2022. urtean espero dezakegunaren inguruan hitz batzuk idazteko. Bada, pilotari bat bezala sentitzen naiz, frontoian, bere partiduan, 21. tantoan dagoela azkeneko sake hori egitera doala. Baina pentsatu ordez gertatu dena aurreko tanto guztietan, goazen, beraz, aurrera begiratzera.

Guztiok ondotxo dakigu urte gogorra izan dela, beste behin ere, baina gertatu dira momentu gogoangarri asko; alegia, kostata izan bazen ere, kirolean nolabaiteko normaltasuna lortu dugula esan daiteke. Esate baterako, urrun badago ere, sarritan oroitzen naiz apirilean izan genuen Oñatiko Duatloiaz, Euskadin konfinamendua ezker eta Euskadiko Triatloi Federazioarekin elkarlanean antolatzen zen lehenengoa, hain zuzen ere. Izerdi latzak bota genituen eta herrian intzidentzia-maila famatua oso gori zegoen, baina, Aloña Mendiko triatloi saileko kideek izan zuten ausardiari esker, ia 400 kirolari batu ziren Oñatiko

kaleetan zehar, berriro ere atsegin handiz gustuko zuten kirol baten ekitaldian parte hartzeko eta disfrutatzeko.

Kirol agendan gorritz markatuta Azkeneko hilabeteetan, Debagoiena kirol hitzorduz beteta egon da. Futbol zelaiak, kirol kantzak eta hainbat toki be-

rriro kirolariz eta publikoz bete dira. Orain dela ez asko, esate baterako, debagoiendar pilo bat izan genituen parte hartzen Behobia-Donostia lasterketa erraldoian; hemen inguruan dagoen jendetsuenean, alegia. Ziurrenez, urte hasieran galdetu izan baligute ea egingo zen ekitaldi hori, gehienok ezetz

erantzungo geniokeen galdera horri.

2022ko agendari dagokionez, berriz, dagoeneko kirolariak ari dira poliki-poliki gorritz markatzen egun konkretuak.

Oñatiko igerilekuaz gozatzea

Orain dela urte batekin konparatuta, neurri murriztaileak apenas existitzen dira bizimodu normala egiteko. Omikron aldaerak urte amaiera zapuztu badigu ere, eta nahiz eta hitz hauek idazten ari naizen momentuan zenbait egitasmo bertan behera gelditu diren; adibidez, Oñatiko eskola-kiroleko azken astea eta ohikoak izaten diren Gabon aurretiko San Tomas merkatuak. Kirolera bueltatuz, San Silvestre proba asko ere bertan behera gelditzen ari dira.

Edozelan ere, bi urte oso gogor pasa baditugu ere, ikusi dugu, aipatu dudan bezala, esperantza izan behar dugula ezagutzen genuen normaltasuna lortzeko

gure bizitzan. Aipatu dut, eta horixe bera azpimarratuko dut: 2021. urtea hobea izan da 2020. urtea baino. Eta datorrena hobe izango delakoan...

Aspektu honetan, nire herriari dagokionez—Oñati—, igerilekua da berritasuna—eta, bide batez, kiroldegiko zati handi bat—, eta, poliki bada ere, erabiltzaileak lortzen ari dira instalazioez gozatzea. Kanpotik joaten garenondako, berriz, iritsi bezain laster oso ederra iruditu zaigu, kontuan izanda nola zegoen Zubikoa zaharra. Nire kasu konkretuan, igerilekura joan nintzen, txapelketa bat zela medio, eta pena izan nuen ezin izan nituelako metro batzuk egin igerilekuko uretan. Ea 2022an murgiltzen naizen...

Neguko Olinpiar Jokoak

Ziurrenik, kostatuko zaigu 2020ko konfinamendu aurretik genuen bizimodua lortzea, baina 2022a berriro izango da esperantzarako urtea. Hala ere, sentsazioa daukat beste balorazio bat ematen diogula kirolak ematen digunari; batez ere, aire zabalean praktikatuak edo lagun artean egindakoari.

Baita ere ilusioz eta esperantzaz bizi izan genuen iazko urte amaiera, eta aurtengoa antzerako doa. Berriro izango ditugu esperotako ekitaldietan parte hartzeko gogo, eta, adibidez, iaz bezala nazioarte mailan berriro jokatuko dira Olinpiar Jokoak; kasu horretan, negukoak. Guri dagokigunez, udakoekin alderatuta horrenbesteko jarraipenik ez dutenak, baina, edozelan ere, seguru nago behin baino gehiagotan begiradaxo bat botako diegula. Izan ere, berriro erakutsiko dugu kirolak ez duela etenik, lagundu egiten digulako bizitzaren gogortasunak leuntzen.





Goienakide izatea **%30 merkeago**

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso dugu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Goienakide zaren hori, zerga onurak ezarriko zaizkizu 2021. urtean Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Horrenbestez, zure kuota %30 merkatuko zaizu errenta aitortpen egiterakoan.



Zure datuak Aldundira bidaltzeko onespina emateko, sartu hemen:
<https://goiena.eus/datuenbabesa>

Edo dei egiguzu: **943 25 05 05**

Epe-muga: **2022ko urtarrilaren 16a.**



Okm: batzen gaituen distantzia

KULTURA 2022

Artisten Estatutu baten premian gaude oraindik



JONE ALAITZ URIARTE / ARTE-PROGRAMATZAILEA

Aurtengoa ere urte kaxkarra izan denik ezin dugu ukatu. Pandemia ondorengoak ekarri dizkigun olatu ezberdinei –sei– aurre hartzen pasa dugu urtea, denboraldia ahalik eta duinen igaroz: osasun-krisiari aurre egiteko neurriak arindu bezain pronto, berriz estutu dira; atzo baimendutakoak etzi jarri dira zalantzan; orain bi aste, 100 lagun eseri gintezkeen antzokian, egun, 80 gara, baina auskalo datorren astean zenbat izango garen. Epe labur batean erabakitzeko dagoen

araua kultur ekintzetarako osasun-pasaportearen derrigorrezko erabilera izango da, eta erabaki horrek, zalantzarik ez, eragin handia izango du kultur arloan ere.

Guztiok, halabeharrez, egoera berrietara moldatuz joan gara, legeak dioenaren eta sen onaren arteko liskar horretan borrokan. Nekez eta ahalegin handiarekin taularatu ditugu sortzaileen lanak, indarrez bultzatuz egin diogu kultur jarduerak aurrez aurrekoratzen buelta zitezen, jendearen berotasune-

ra, berezkoa duten espazio publikoak. Eta behin eta berriz aipatu den leloa errepikatuz, kultura segurua dela –eta beharrezkoa– frogatu da une oro eta toki oro.

Erakundeen babes falta

Aurten ere, kultur arloko langile eta sortzaile askok babes eta sostengu eskasa aurkitu dute ezohiko egoeren aurrean; izan ere, nekez biziraun daiteke bere edukieraren erdira funtzionatzen duen antzoki, kontzertu-areto edo zinema-areto batetik. Zaila

delako –ia ezinezkoa– boloen ia erdiak bertan behera geratu zaizkien antzerki konpainiei eustea edo bira ezin amaitu geratu diren taldeekin jarraitzea. Atzean uztear dugun urtea hotza izan da, eta bistan utzi du, berriz ere, egungo kultur sistemak eragiten eta egonkortzen duen prekaritateak erakundeen babes faltagatik, politika eraginkorren eskasiagatik, laguntzak berandu bideratzen direlako eta Artisten Estatutu baten premian gaude-lako oraindik ere.

Datorrigun urte berriko jomuga pare dugula probestuz, agian, bada garaia Artisten Estatuari behingoz serio heltzeko eta legedi propioa sortzeko. Bide batez, kultur arloan eragileen eta teknikarien fiskaltateak, lan-babesa eta Gizarte Segurantzak bermatzeko. Kultura segurua eta beharrezkoa baldin bada, hala izan behar dutelako bertan diharduten lan-baldintzek eta etorkizunak ere.



DEBAGOIENEN

PROFESIONAL LIBERALAK

| | |
|--|--|
| <p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxe: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p> | <p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradespersion formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arklestudioa@gmail.com</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p> |
|--|--|

Ongi etorri 2022!!

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.




ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO
MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala



URE BEZEROAK:



Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

Urte berri on!

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)